



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

572167c2d8205a6437e21442c6387fa2c8e81dffbc72778d10db99969a4517b4

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2023KO URTARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2023.01.26**

Tolosako Udaletxean, 2023ko urtarrilaren hogeita seian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)  
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)  
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)  
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso



## Gai-zerrenda

1. Akta hauek onartzea:  
2022ko abenduaren 15eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.  
2022ko abenduaren 29ko Aparteko eta Premiazko Osoko Bilkurakoa.
2. Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia hasieraz onartzea.
3. Ez onartzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan indarrean dauden tarifak aldatzeko BPXPORT enpresak egindako eskaera.
4. Onartzea 2023. urtean udal langileen eta dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien igoera.
5. Onartzea Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa eta akatsaren zuzenketa.
6. Hasieraz onartzea 2023ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena 1-2023.
7. Hasieraz onartzea Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorren aldaketa.
8. Onartzea Tolosako HAPOko «23. Usabal industrialdea 2» esparrua aldatzeko espedienteari hasiera ematea, eta horri dagokion herritarrek partehartzeko programa.
9. Hasieraz onartzea Zarata eta Bibrazioei buruzko udal ordenantza.
- 10.2022/2974 Dekretuaren berri ematea: Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoa ustiatzeko eta obrak egiteko emakida-kontratuaren amaiera.
11. Berri ematea: Tolosako biztanleen erroldaren berrikuspenetik ateratako biztanleen kopuru ofiziala, 2022ko urtarrilaren 1ekoa.
12. Kreditu aldaketa hauen berri ematea: 20/2022, 21/2022, 22/2022 eta 1/2023
13. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

### **1. AKTA HAUEK ONARTZEA:**

**2022KO ABENDUAREN 15EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

**2022KO ABENDUAREN 29KO APARTEKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako aktak aho batez onartu dituzte.



## **2. UDAL JABARIKO LOKAL EDO HIGIEZINAK ERABILTZEKO BAIMENAK EDO LAGAPENAK KUDEATZEKO ARAUTEGIA HASIERAZ ONARTZEA.**

### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

#### **AURREKARIAK:**

Toki-erakundeen ondarearen kudeaketa efizientzia- eta ekonomia-printzipioen arabera egin behar da, eta eraginkortasunez aplikatu behar da, funtzio eta helburu publikoak kontutan hartuz. Toki-erakundeen ondasunei buruzko legerian jasotako erantzukizuna da, eta alderdi ekonomiko eta sozial bikoitzari erreparatu behar ztio.

Gaur egun, elkarte-elementua funtsezko elementua da gizarte parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzeke prozesuan, eta funtsezko faktorea da gizartearen aurrerabiderako. Horregatik, herritarren parte-hartzea beharrezkoa da, gure herriko elkarte-sarea osatzen duten herritarren kolektiboen eta elkarten bidez.

Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarte edo kolektibotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen oro. Halaber, arau honetako eskubideak egikaritzeko, herritarren elkarte eta kolektiboek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bete beharko dute.

Udalek, herritarrengandik hurbilen dagoen herri-administrazioa den aldetik, beren jabetzako baliabideak eta ondasunak jarri behar dituzte haien esku, elkarte-sare bat sortzen laguntzeko, beti ere pertsonak beren alderdi solidarioak, sozialak, kulturalak, kirolekoak edo interes orokorreko beste edozein motatakoak garatzeko helburuarekin.

Esparru horretan hedatzen du Tolosako Udalak elkarte-sarea sustatzeko ekintza, eta elkarten beharrak konpontzen saiatzen da, Udal jabari publikoaren erabilera berezia egiteko baimena, edo udal ondareari atxikitutako lokalen lagapenaren bitartez. Beraz, gizarte-intereseko jarduera autokudeatuak sustatzea da helburua.

Hau dena antolatzeke, Ordenantza Proposamena egin da. Araudi honen helburua da Tolosako irabazi asmorik gabeko gizarte-, kultura-, kirol- eta gainontzeko elkarte eta kolektiboek beren jarduerak garatzeko egoitza sozial edo espazio bat arautzea eta erraztea, eta, aldi berean, gune hori elkargune bat izatea beren kideentzat eta, oro har, Tolosako herritarrentzat.

Halaber, Tolosako Udalari dagozkio oinarrizko antolaketa-neurriak eta -arauak ezartzea xede duten tutoretza-ahalmenak, une horretan erakunde horiek izan dezaketen autonomiari kalterik egin gabe.

Erabilera guztiak, edozein izaera dutela ere, Udalaren eta hartzaileen arteko erantzunkidetasun-printzipioaren arabera arautuko dira uneoro.

Beraz, Ordenantza honen asmoa, udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzea da.

Lokal eta higiezinaren lagapena eta erabilera helburu hauetara bideratuko dira:

- Irabazi asmorik gabeko herritarren erakundeek -elkarrekin zein nortasun juridikorik gabeko kolektiboek- udal higiezinak edo lokalak erabil ditzaten sustatzea, baldin eta



jarduera hori komunitatearen onerako bada Tolosako udalerrian garapen komunitarioa bultzatzeko.

- Bizitza publikoa eta gizarte eragileak dinamizatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta lurraldearen garapen komunitarioa bultzatzeko gizarte-, kultura-, prestakuntza-, informazio-, hezkuntza-, euskara-, berdintasuna, merkataritza eta gainontzeko ekonomia sektore-, jolas- eta kirol-jardueren garapena bultzatzea.
- Ahal den neurrian, udal higiezin edo lokaletako herritarren erakundeen arteko kudeaketa partekatua bultzatzea, lurraldean jarduten duten elkarte eta kolektiboen artean baliabide publikoen eta sinergia kooperatiboen erabilera eraginkorra sustatzeko.
- Erabiltzen ez diren edo gutxiegi erabiltzen diren higiezinak edo udal-lokalak erabiltzea.

2022ko azaroaren 15eko datarekin egindako, txosten teknikoaren arabera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoarekin bat, jendaurreko kontsulta egin da eta iradokizunik ez da jaso.

## AZTERKETA JURIDIKOA

### 1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

#### UDAL ESKUMENA

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- 1- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- 2- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- 3- udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 5. artikuluan, honela dio:

“Toki-erakundeek, beren helburuak betetzeko eta beren eskumenen esparruan, Konstituzioarekin eta legeekin bat etorri, gaitasun juridiko osoa izango dute era guztietako ondasunak eskuratu, eduki, aldarrikatu, trukatu, kargatu edo besterentzeko, kontratuak egiteko, obra edo zerbitzu publikoak ezarri eta ustiatzeko, betebeharrak hartzeko, ezarritako errekurtsioak jartzeko eta legeetan aurreikusitako akzioak egikaritzeko”.

-25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2. artikulua c) atalak udalek, besteak beste, ondorengo



kompetentziak jasotzen ditu: "bere titulartasuneko ekipamenduak", m) apartaduan ondorengoak: kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea".

-Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzte. Hain zuzen ere, 2. atalean: "Espazio publikoetan bizikidetzaharremanak antolatzea eta kudeatzea". Lege horren 3. atalean ondorengo jasota dago: "Espazio publikoetan bizikidetzaharremanak antolatzea eta kudeatzea". 25) apartaduan: "Gizarte garapena". 28) apartaduan: "udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarako, kontserbazioa eta mantentze lanak arautzea".

### **Erakundeen alde udal jabariaren erabilera honela dago arautua:**

-Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak, bere 72. artikuluan: "Toki-korporazioek elkarrekin garapena bultzatzen dute, auzotarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko, beren jardueri buruzko informazio zabalena ematen diete, eta, ahal duten neurrian, baliabide publikoak erabiltzen eta jarduerak egiteko dirulaguntzak eskuratzen laguntzen diete, eta korporazioaren kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, 69. artikuluko 2. zenbakiaren arabera".

-Bestalde, antzera dio Toki-erakundeen Araubidea eta Funtzionamendua Antolatzeko Erregelamenduak, bere 233. artikuluan: "Las asociaciones a las que se refiere el artículo anterior podrán acceder al uso de medios públicos municipales, especialmente locales...."

Beraz, Teknikari honen iritziz, Tolosako udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.

### **Erabilera mota eta ahalbideraketa, ondorengo arautegian dago xedatuta:**

-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 1 eta 6 arteko artikulua honela diote:

1. artikulua: ondasunen kontzeptua eta sailkapena :

"1. Toki-erakundeen ondarea beren ondasun, eskubide eta akzio guztiek osatuko dute.

2. Toki-erakundeen ondasunen araubidea honako hauek arautuko dute:

- a) Estatuak toki-araubidearen arloan duen oinarritzko legeriak.
- b) Administrazio publikoen ondasunen araubide juridikoa arautzen duen Estatuko oinarritzko legeriak.
- c) Autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan emandako legeak.
- d) Aurreko paragrafoetan aipatutako legeriarik ez badago, toki-araubidearen eta ondasun publikoen arloan oinarritzko ez den Estatuko legediak.
- e) Erakunde bakoitzaren ordenantzek.
- f) Ordezko gisa, ordenamendu juridiko, administratibo eta zibileko gainerako arauak.



3. Nolanahi ere, Estatuko zuzenbidea aplikatuko da, Konstituzioaren 149.3 artikulua arabera.

#### 2.artikulua:

1. Toki-erakundeen ondasunak honela sailkatuko dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak.
2. Jabari publikoko ondasunak erabilera edo zerbitzu publikokoak izango dira.
3. Herri-ondasuntzat joko dira, herri-jabarikoak izanik, ondasun horien aprobetxamendua auzotarren erkideari badagokio.
4. Herri-ondasunak udalerrienak eta toki-erakunde txikienak baino ezin izango dira izan.

#### 3.Artikulua:

1. Tokiko erabilera publikoko ondasunak dira bideak, plazak, kaleak, pasealekuak, parkeak, iturri eta urmaeletako urak, zubiak eta aprobetxamendu edo erabilera orokorreko gainerako herri-lanak, baldin eta horien kontserbazioa eta polizia toki-erakundearen eskumenekoak badira.
2. Lurzoruak planak onartzen direnetik hirigintza-xedearekin duen loturari kalterik egin gabe, hirigintza-legeriaren arabera administrazio jardulari eskubidea lagatzen zaion unean lotuko zaizkio higiezinak erabilera publikoari.

#### 4.artikulua:

Zerbitzu publikoko ondasunak dira toki-erakundeen erantzukizuneko helburu publikoak betetzera zuzenean bideratutakoak, hala nola udaletxeak, probintzia-jauregiak eta, oro har, horietako eraikinak, hiltegiak, merkatuak, lonjak, ospitaleak, ospitaleak, museoak, mendi katalogatuak, eskolak, hilerriak, garraio-elementuak, igerilekuak eta kirol-zelaiak, eta, oro har, zuzenean zerbitzu publiko edo administratiboak ematera bideratutako beste edozein ondasun.

#### 5.artikulua:

Herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira, eta ez dute inolako zergarik.

#### 6.artikulua:

1. Ondare-ondasunak edo norberaren ondasunak dira, toki-erakundearen jabetzakoak izanik, erabilera publikorako ez direnak edo zerbitzu publikoren bati atxikita ez daudenak eta erakundearen altxorrerako diru-iturri izan daitezkeenak.
2. Ondare-ondasunek berariazko legeria dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.



-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 75. artikulua honako erabilera motak bereizten ditu, herri jabariari dagokionean:

• Jabari publikoko ondasunak erabiltzean, honako hauek hartuko dira kontuan:

1. Erabilera erkidea, herritar guztiei berdin dagokiena, batzuen erabilerak ez dezan eragotzi gainerako interesdunen erabilera, eta aintzat hartuko da:

a) Orokorra, inguruabar berezirik ez dagoenean. b) Berezia, baldin eta izaera horretako inguruabarrak badaude arriskugarritasunagatik, erabileraren intentsitateagatik edo antzeko beste edozeinengatik.

2. Erabilera pribatiboa, jabari publikoaren zati bat okupatzeak osatzen duena, gainerako interesdunek erabilera mugatu edo bazter dezaten.

3. Erabilera arrunta, eragiten dion jabari publikoaren erabilera nagusiarekin bat datorrena.

4. Erabilera anormala, helburu horrekin bat ez badator.

-Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92ak honela dio:

1.- Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei zuzenean emango zaizkie baimenak, salbu eta, edozein arrazoiengatik, eskatzaile horien kopurua mugatuta badago. Kasu horretan, lehia-erregimenean emango dira baimenak, eta hori bidezkoa ez bada, eskatzaileek baldintza berezirik baloratu behar ez dutelako, zozketa bidez, baldin eta beste zerbait ezarri ez bada baldintza horietan.

2. Baimenak ez dira eskualdatuko, baldin eta baimen-emate horretarako baimenduaren inguruabar pertsonalak kontuan hartu behar badira edo baimen-kopurua mugatuta badago, salbu eta baimen horiek arautzen dituzten baldintzek eskualdatzea onartzen badute.

3. Baimenak aldi jakin baterako eman beharko dira. Gehienezko iraupena, luzapenak barne, lau urtekoa izango da.

4. Administrazio emakidatzaileak edozein unetan ezeztatu ahal izango ditu baimenak, interes publikoko arrazoiak direla medio, kalte-ordainerako eskubiderik sortu gabe, baldin eta ondoren onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, jabari publikoan kalteak eragiten badituzte, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo erabilera orokorra kaltetzen badute.

5. Baimenak doakoak izan ahal izango dira, kontraprestazio edo baldintzekin eman ahal izango dira, edo Estatuko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasaren mende egon ahal izango dira – tasa hori Estatuko eta Tokiko Tasen eta Ondare Prestazio Publikoen Lege Araubidea aldatzeko eta horiek berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legearen I. tituluko VIII. kapituluan araututa dago –, edo haien arau berezietan aurreikusitako tasen mende.



Ez dute tasarik ordaindu beharko baldin eta jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik baimendutako pertsonari, edo, erabilera edo aprobetxamendu hori egonda ere, erabilera edo aprobetxamenduak onura hori deuseztatzen edo hutsaltzen duten baldintzak edo kontraprestazioak badakartza onuradunarentzat. Aurreko lerrokadan aurreikusitako kasuetan, horren berri emango da baimenaren baldintza-agirietan edo klausuletan.

6. Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako baimenen eskatzaileari, aplikagarri zaion araubide ekonomikoa edozein dela ere, ondasunaren erabileraren bermea eskatu ahal izango zaio, egoki irizitako moduan, bai eta hura lehengoratzearena edo konponketarena ere, edo, aldaketaren kasuan, kalteen ordaina. Sortutako gastuen kobrantza, emandako bermea baino handiagoa denean, premiamendu-bidez egin ahal izango da.

7. Baldintza orokorrek edo partikularrek jaso ditzaketen gainerako alderdiak alde batera utzita, herri-jabariko ondasunak eta eskubideak erabiltzeko baimena emateko akordioak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Ondasuna edo eskubidea erabiltzeko araubidea.

b) Baimenaren araubide ekonomikoa.

c) Eman beharreko bermea, hala badagokio.

d) Kontserbazio- eta mantentze-gastuak, zergak, tasak eta gainerako tributuak bere gain hartzea, bai eta ondasuna izaeraren arabera erabiltzeko eta jasotzen den egoeran entregatzeko konpromisoa ere.

e) Ondasunaren erabilerak edo haren gainean egin beharreko jarduerak eskatzen dituen lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzeko konpromisoa.

f) Okupazioaren ondoriozko erantzukizuna bere gain hartzea, eta, hala badagokio, dagokion aseguru-poliza, banku-abala edo nahikoa den beste berme bat formalizatzeko betebeharra aipatzea.

g) Interes publikoko arrazoiengatik, alde bakarreko errebokazioa onartzea, kalte-ordainetarako eskubiderik gabe, artikulua honetako 4. paragrafoan aurreikusitako kasuetan.

h) Baimena ematen duen ministerioak edo erakundeak baimenaren xede den ondasuna ikuskatzeko ahalmena erreserbatzea, baimenaren baldintzen arabera erabiltzen dela bermatzeko.

i) Luzapen- eta subrogazio-epea eta -araubidea; kasu guztietan, alde aurreko baimena beharko da.

j) Azkentzeko arrazoiak.

8. Modu honetan xedatutakoa lege honen 90. artikuluan aurreikusitako erabilera-baimen bereziei aplikatuko zaie, haren xedearekin eta xedearekin bateraezina ez den guztian.





-Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikulua honela dio:

“Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán cederse gratuitamente sino a Entidades o Instituciones publicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal, así como a las Instituciones privadas de interés público sin animo de lucro. De estas cesiones también se dará cuenta a la autoridad competente de la Comunidad Autónoma”.

## 2.- Ordenantzaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

## 3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Tolosako udaleko Antolakuntza Batzordeak irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du 2023ko urtarrilaren 18an izandako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa, Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstenzioak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte. Hots, irizpenaren proposamena gehiengoz onartu da.

Beraz, honako irizpena onartzea proposatzen zaio Tolosako udalbatza osoari

### PROPOSAMENA:

**LEHENA.-** Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia hasieraz onartzea, eranskinean dagoen eran.

**BIGARRENA.-** Ordenantza eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea



hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-**Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

### ERANSKINA:

Toki-erakundeen ondarearen kudeaketa efizientzia- eta ekonomia-printzipioen arabera egin behar da, eta eraginkortasunez aplikatu behar da, funtzio eta helburu publikoak kontuan hartuta. Toki-erakundeen ondasunei buruzko legerian jasotako erantzukizuna da, eta alderdi ekonomikoari eta sozialari erreparatu behar zaio.

Gaur egun, elkarte-elementua funtsezko elementua da gizarte parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzeke prozesuan, eta funtsezko faktorea da gizartearen aurrerabiderako. Horregatik, beharrezkoa da herritarrek parte-hartzea gure herriko elkarte-sarea osatzen duten herritarren kolektiboen eta elkarteen bitartez, komunitatearen gizarte eta kultura aberastasuna mantentzeko eta, era berean, ordezkatzeko dituzten gizarte sektoreei eragiten dieten gaiak jorrazteko.

Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarte edo kolektibotzat hartuko da helbide sozial, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen oro. Halaber, arau honetako eskubideak egikaritzeko, herritarren elkarte eta kolektiboek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bete beharko dute.

Udalek, herritarrengandik hurbilen dagoen herri-administrazioa den aldetik, beren jabetzako baliabideak eta ondasunak jarri behar dituzte haien esku, elkarte-sare bat sortzen laguntzeko, beti ere pertsonen beren alderdi solidarioak, sozialak, kulturalak, kirolekoak edo interes orokorreko beste edozein motatakoak garatzeko helburuarekin.

Beraz, herritarren parte-hartzea beharrezkoa da; hau da, elkarte eta kolektiboen bitartez Tolosako elkarte-sarea osatzen duten herritar eta elkarteek Komunitatearen aberastasun soziala eta kulturala zaintzea eta aberastea.

Esparru horretan hedatzen du Tolosako Udalak elkarte-sarea sustatzeko ekintza, eta elkarteen beharrak konpontzen saiatzen da, Udal jabari publikoaren erabilera berezia egiteko baimena emanda, edo udal ondareari atxikitutako lokalen lagapenaren bitartez. Beraz, gizarte-intereseko jarduera autokudeatuak sustatzea da helburua.

Era honetan, Araudi honen helburua da Tolosako irabazi asmorik gabeko gizarte, kultura, kirol arloko eta gainontzeko elkarte eta kolektiboentzako haien jarduerak garatzeko egoitza sozial edo espazio bat arautzea eta bideratzea, eta,aldi berean, gune hori elkargune bat izatea bertako kideentzat eta, oro har, Tolosako herritarrentzat.



Halaber, Tolosako Udalari dagozkio oinarrizko antolaketa-neurriak eta -arauak ezartzea xede duten tutoretza-ahalmenak, une horretan erakunde horiek izan dezaketen autonomiari kalterik egin gabe.

Erabilera guztiak, edozein izaera dutela ere, Udalaren eta hartzaileen arteko erantzukidetasunaren printzipioaren arabera arautuko dira une oro.

### 1.- Xedea

Araudi honen xedea da irizpideak ezartzea erabilera-baimenak edo -lagapenak kudeatzeko; hain zuzen, Tolosako udalerrriaren eremuan, herritarren elkarte eta kolektiboek egonkortasunerako eta jarraitutasunerako bokazioa duten interes publikoko eta sozialeko proiektuak garatu ahal izateko espazio bat emateko baimenak eta lagapenak. Horretaz gain, Araudiak arautuko ditu unean uneko erabilerak.

### 2.- Erabilera-baimenen edo -lagapenen helburuak

Lokal eta higiezinaren lagapena edo erabilera baimentzea helburu hauetarako izango da:

- Irabazi asmorik gabeko herritarren erakundeek -elkartek zein nortasun juridikorik gabeko kolektiboek- udal higiezinak edo lokalak erabil ditzaten sustatzea, baldin eta jarduera hori komunitatearen onerako bada Tolosako udalerrian garapen komunitarioa bultzatzeko.
- Bizitza publikoa eta gizarte eragileak dinamizatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta lurraldearen garapen komunitarioa bultzatzeko gizarte-, kultura-, prestakuntza-, informazio-, hezkuntza, euskara, berdintasuna, merkataritza eta gainontzeko ekonomia sektore-, jolas- eta kirol-jardueren garapena bultzatzea.
- Ahal den neurrian, udal higiezin edo lokaletako herritarren eta erakundeen arteko kudeaketa partekatua bultzatzea, lurraldean jarduten duten elkarte eta kolektiboen artean baliabide publikoen eta sinergia kooperatiboen erabilera eraginkorra sustatzeko.
- Erabiltzen ez diren edo gutxiegi erabiltzen diren higiezinak edo udal-lokalak erabiltzea.

Lagapenaren arabera egiten diren jarduerak ezin izango dira inola ere zerbitzu-kontratu tipiko bati edo zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bati dagozkionak izan.

### 3.- Elkarte eta Kolektibo erabiltzaileak

Higiezinak eta ekipamenduak erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da elkarte interesduna legez eratuta egotea, edota ordezkari identifikatua duen nortasun juridikorik gabeko kolektiboa izatea. Elkartearen kasuan, Euskadiko Elkartearen Erregistroan inskribatuta egon behar du. Nortasun juridikorik gabeko kolektiboen kasuan, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 69.4.f) eta 71.4 artikuluetan xedaturiko



baldintzak bete behar dituzte. Halaber, elkarte eta kolektibo guztiek irabazi-asmorik ez izatearen baldintza bete behar dute.

Herritar-erakunde, kolektibo, edo elkarte batek irabazi-asmorik ez duela ulertuko da bere estatutuetan hala agertzen denean eta inolako jarduera ekonomikorik garatzen ez duenean, edo, hori garatzean, jarduera horren fruitua bere estatutuetan ezarritako interes orokorreko helburuak betetzera bakarrik bideratzen denean, zuzeneko edo zeharkako mozkinak bazkideen edo hirugarrenen artean banatu gabe. Higiezinan egiten den jardueraren ondoriozko edozein onura entitatara edo haren jardueretara itzuli beharko da. Kolektiboen kasuan, irizpide berdinak aplikatuko dira, nahiz eta taldeak Estatuturik ez izan.

#### **4.- Araubide juridikoa**

Jarraibide hauetan jasotako erabilera-baimenen edo -lagapenen erregulazio juridikoa kasu bakoitzean aplikatzekoa izango da, proiektatzen den ondasun-motaren arabera. Izan ere, erabilera baimenek jabari publikoko ondasunei eragingo diete, eta lagapenek, ondare izaerako ondasunei.

#### **5.- Eskabideak eta dokumentazioa**

Araudi honen arabera aurkeztutako eskaeratarako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

A) Baimena edo lagapenaren eskaera. Instantzia horretan honako hauek identifikatuko dira, beste batzuen artean: higiezina zein helbidetan dagoen eta baimena, erabilera zenbat denborarako eskatu nahi den, erabileraren xedea eta abar. Horretarako, Udalak egindako eskaera-eredua erabiliko da, araudi honi erantsi zaiona (I).

B) Ordezkaritzaren egiaztapena. Elkarteen kasuan, ordezkaritzak egiaztatuta egon behar du Elkarteen Erregistroan eta hara joko du Udalak, entitateak horren aurka egiten ez badu. Bestela, dokumentu hori aurkeztu beharko du eskaerarekin batera. Nortasun juridikorik gabeko kolektiboa bada, ordezkaritaren izendapena eta karguaren indarraldia egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da (akta, ziurtagiria...). Dokumentu hori izan daiteke ordezkariek egindako erantzukizunpeko adierazpena edo taldeak egindako batzarraren ziurtagiria.

C) Udalarekin solaskidea izango den pertsonaren identifikazioa eta kontaktua (telefonoa, eta helbide elektronikoa).

D) Erakundea elkarte bat bada, Euskadiko Elkarteen Erregistroan inskribatua egotearen aitortpena, eta Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren agiria.

E) Administrazioarekin kontratatzeko debekurik eta bateraezintasunik ez izateari, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari eta Tolosako Udalarekin betearazpen-aldian zerga-zorrik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, elkartearena edo nortasun juridikorik gabeko kolektiboaren ordezkaritaren, kasuan kasu. Tolosako Udalak egiaztatu ahal izango ditu baldintza horiek.



F) Elkarte edo kolektiboak azken urtean egindako memoria, aldez aurretik ez balego Udalaren esku.

G) Lokalean garatuko diren jardueren proiektua, honako atal hauekin, gutxienez: honen txantiloia erantsiko zaio eskaera-ereduari, honako puntu hauek sartuta:

- Lokala erabiltzeko beharra edo arrazoiak
- Aurreikusitako jardueren deskribapena, bai erakundearen antolaketa-beharretatik eta barne-funtzionamendutik eratorritakoak, bai kideen onurarako zerbitzuak ematea dakartenak eta/edo kanpoko proiektio publikoa dutenak. Deskribatutako jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzen duten erabiltzaileen, onuradunen, eta boluntarioen kopurua aurreikusiko da, sexuaren arabera bereizita.
- Egin nahi den erabilera-araubidea, zera, erakundearen beraren onurarako bakarrik edo beste elkarte edo kolektibo batzuekin batera erabiltzeko.
- Lokala erabilera eskusiboko erregimenean esleitzea eskatuz gero, adierazpen bat, adierazteko erakundeak beste erakunde onuradun batzuekin erabilera partekatutako araubide bat onartzeko aukera duela.
- Gutxi gorabeherako deskribapena, aurkeztutako jarduera-proiektuaren arabera, lokalaren ezaugarriei eta kokalekuari, erabilera zehatzei eta lokalaren espazio eta instalazioetan aurreikusitako erabilera-ordutegiei buruzkoa.
- Elkarrekin edo kolektiboak aurreikusitako jarduerak garatzeko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak. Giza baliabideak sexuaren arabera bereizita. Bazkide kopurua azalduko dute. Baita Zuzendaritza Batzordea (sexuaren arabera bereizita).
- Lokalaren erabilera epea.
- Elkarrekin lokala mantentzeko erabiliko duen aurrekontua, hala badagokio.
- Azkeneko ekitaldian jasotako dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerak adierazita.
- Eskatzen den proiektuan deskribatutako jarduera eta zerbitzuen erabiltzaile-kopurua aurreikustea.
- Eskatutako baimen eta lagapen mota garatu nahi diren jardueretara egokitzen dela justifikatzea.

H) Erabilera partekatuaren kasuan, eta eskaera modu kolektiboan eginez gero, elkarte edo kolektibo interesdunen zerrenda erantsi beharko da, (sexuaren arabera bereizita) eta adierazi beharko da zeinek hartuko duen bere gain baimenaren edo lagapenaren titulartasuna, eta erakunde bakoitzeko organoen adostasuna alderdi horrekin.



## 6.- Esleitzeko irizpideak

Udal higiezinak edo lokalak baimentzeko edo lagatzeko, aurkeztutako proiektuak aztertuko dira, eta haiek esleitzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Eskatzaileek haien jarduera Tolosan egitea, edo elkartearen bulegoa edo ordezkariak iraunkorra Tolosan egotea.
- Aurkeztutako proiektuak lankidetzara publiko-sozialekoak izatea, herritarren parte-hartzea sustatzea, garapen komunitarioa sustatzea edo hiri-bizitzaren kalitatea hobetzera, berdintasuna ikuspegi intersektionalarekin defendatzera, gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea edo Tolosako biztanleen onurarako diren eta udal-eskumenekoak diren gizarte-intereseko helburuak lortzera bideratuta egotea.
- Eskatutako espazioaren erabilera partekatua izatea, betiere, eskatzaileen jarduerak bateragarriak badira.
- Elkarte eta kolektiboek garatzen dituzten jarduerak, gehienbat, irekiak, doakoak eta inklusiboak izatea.

Irizpide horiek norgehiagoka-kasuetan erabiliko dira, eta lehiarik gabe eta era zuzenean egiten diren esleipenetan, dagokion elkarteak bete beharko ditu araudi honetan xedaturiko baldintzak.

## 7.- Esleitzeko prozeduraren hasiera.

Baimena edo erabilera-lagapena emateko prozedura kasu bakoitzerako legeak ezartzen duena izango da.

Prozedura, laburbilduz, honela garatuko da:

### 1.- Eskaera aurkeztea Tolosako Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean. Ondoren, UDATEk, herritarren arreta bulegoak, ardua hauek izango ditu:

- a) Lokala erabiltzeko eskaera erregistratzea, eta eskatzaileei laguntza ematea, beharrezkoa izango balitz, haien eskaerak bide elektronikotatik aurkez ditzaten.
- b) Egiaztatzea instantzia behar bezala beteta dagoela eta bertan zerrendatuta dauden dokumentuak aurkeztu direla.
- c) Egiaztatzea eskaerak aurkezten direla 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea (APAPEL) arautzen duenak, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, zera, bide elektronikoa erabiliz.
- d) Errekerimendua egitea, goian aipaturiko Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaera zuzendua izan dadin kasu hauetan: instantzia gaizki beteta egongo balitz, daturen bat faltako balitz, dokumenturen bat faltako balitz, edo Administrazioarekin elektronikoki komunikatzeko betebeharra beteko ez balitz.



Errekerimendua, eskaera jaso eta ahalik eta azkarren egin beharko da, eta gehienez, hamar laneguneko epean.

## **2.- Ondoren, elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Sailak (erreferentziako Sailak) hauek beteko ditu:**

- a) Orokorrean, aztertzea eta egiaztatzea eskaerarekin aurkezturiko dokumentazioa zuzena den ala ez.
- b) Egiaztatzea elkartearen herri-onurako adierazpena edo, hala badagokio, erregistro publikoetako inskripzio-ziurtagiria eta eskatzailearen ordezkartza.
- c) Egiaztatzea Gizarte Segurantzarekiko eta zergen betebeharrakiko informazioa zuzena dela.
- d) Egiaztatzea, erakundeak azken urtean egindako jardueraren memoria bat datorrela aurkezturiko proiektuarekin.
- e) Aztertzea elkarte edo kolektiboak aurkezturiko proiektua, eta ondorengo artikuluan xedaturiko txostena egitea.
- f) Errekerimendua egitea, APAPEL Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaera zuzendua izan dadin. Errekerimendua eskaera jasotzen den biharamunetik hamabost laneguneko epean egingo da, eta interesdunari jakinaraziko zaio zuzendu edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak aurkeztu behar dituela hamar laneguneko epean. Halaber, errekerimenduan jakinaraziko zaio xedatutakoa betetzen ez badu, dagokion izapiderako eskubidea galdutzat emango dela. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen duen ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada.

## **8.- Udal jabari publikoaren erabilera berezia edo ondare izaerako lokala prekarioz lagatzeko baimena: txostenak eta ebazpena.**

1. Behin dokumentazioa osatuta, elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Sailak espedientea informatuko du, hauek aztertuz (II. eranskina):
  - a) Aurkezturiko eskaerak eta harekin doan dokumentazioak Araudi honen xedapenak betetzen dituzten ala ez egiaztatzea, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera.
  - b) Lokalaren deskribapena eta izaera juridikoa zehaztea -jabari publikokoa edo ondarekoa- , Udalean dagoen informazioaren arabera. Horretarako, Idazkaritza Sailak lokalen katalogoa erakusgarri jarriko du, denek kontsultatu ahal izateko, eta beharrezkoa izango balitz, informazioa helaraziko zaio Sailari.



- c) Proiektuak duen interes soziala edo inpaktu soziala, dagokion eremuan, aztertzea eta justifikatzea, hauek kontuan harturik, besteak beste:
- Elkarte edo kolektiboak duen beharra.
  - Herritar orori irekitako jarduerak izatea.
  - Lokalaren egokitasuna, garatu behar diren erabilerekiko.
  - Entitatearen ibilbidea
  - Entitatearen adierazgarritasuna, dagokion eremuan (kideen kopurua)
  - Proiektuaren ezaugarri teknikoak eta operatiboak: proiektuaren lanketa-, xehetasun- eta zehaztasun-maila, kalitate teknikoa helburuak zehaztuta, metodologia, tenporalizazioa, ebaluatzeko baliabideak eta mekanismoak, koordinazioa eta egungo baliabideekiko osagarritasuna.
  - Koordinatzaileak, federazioak edo erakundeak elkartzeko beste modu batzuk izatea.
- d) Jardueren ordutegia.
- e) Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, Araudi honetan xedatutakoaren arabera.
- f) Lokaleko mantentze- eta konponketa- edo birjartze-gastu txikiei aurre egiteko betebeharrari dagokionez, Udalak ordaintzea justifikatzen duen salbuespenezko egoera bat egon daitekeela justifikatzea.
- g) Erabileraren baldintzak.
- h) Lokalean egon daitezkeen eta erabiliko diren ondasunen zerrenda. Zerrenda hori ebazpenari eta bi aldeek sinatutako emate-aktari erantsiko zaio
- i) Sailak justifikatu beharrekotzat jotzen dituen beste alderdi batzuk
2. Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Saileko teknikariek espedientea informatuko dute, hauek aztertuz:
- a) Suteen aurka hartu beharreko neurriak.
  - b) Lokalaren gehieneko edukiera.
  - c) Onargarriak ez diren erabilerak.
  - d) Baimendu daitezkeen erabilerak eta debekatutako erabilerak.
3. Zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa egingo du. Txostenak aplikatu beharreko aurrekariak eta oinarri juridikoak jasoko ditu. Halaber, Ebazpen Proposamena egingo du.





4. Txostenak egin ondoren, elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Sailak lagapena edo baimenari dagokion erabakia prestatuko du. *Horretarako, Idazkaritza Saileko laguntza eskuratu ahal izango dute: dokumentuen ereduak, irizpide juridikoak, eta abar.*

### 9.- Erabilera baimentzeko edo lagatzeko tituluak eta baldintzak

Doan erabiltzeko baimenak edo lagapenak dagokien tresna juridikoan formalizatuko dira, zera (III/IV eranskinak):

- a) Jabari publikoko lokalen erabilera berezia eskumena duen udal organoaren erabakiaz formalizatuko da, eta bertan txertatuko dira baldintza guztiak.
- b) Ondare izaerako lokalen prekariozko lagapena eskumena duen udal organoaren erabakiaz emango da.
- c) Dokumentu hauetan, gutxienez, hauek jasoko dira:
  - Ondasunaren identifikazioa: helbidea, ezaugarri fisikoak eta izaera juridikoa.
  - Lokalarekin batera erabiliko diren ondasun higigarrien zerrenda zehatza.
  - Baimena edo lagapenaren xedea.
  - Baimena edo lagapenaren erregimena (soilik erakunde interesdunarentzat edo erabilera partekatua beste entitateekin).
  - Baimenaren edo lagapenaren iraupena.
  - Erabilera-ordutegia.
  - Erabilera-baldintza orokorrak.
  - Lokala kontserbatzeko eta mantentzeko gastuei buruzko xedapenak, Tolosako Udalak onartutako mantentze-lanen eskuliburuan xedaturikoa kontuan hartuz. Mantentze-libururik ez balitz egongo, lokaleko mantentze- eta konponketa- edo birjartze-gastu txikiei aurre egiteko betebeharra lokalaren erabiltzaileari egotziko zaio (hornidurak, erabilerak sortzen dituen mantenu- eta birjarpeneko gastu txikiak, lokalaren instalazio edota higiezinaren elementu orokorreki eragiten ez dizkienak). Halaber, Udalak erabiltzaileari eskatu ahal izango dizkio lan horiek egiaztatzen dituzten dokumentuak. Azkenik, Udalak gastu horiek ordaintzetik salbuetsi ahal izango ditu erakundeak, ebazpen arrazoitu baten bidez.
  - Erabiltzaileak honako aseguruak hitzartu izanaren agiriak (polizak eta ordainagiriak) aurkezteko betebeharra, eta hori betetzeko epea:
    - Erantzukizun zibilari buruzko aseguru, Tokiko Erantzukizun Zibila (*responsabilidad civil locativa*) barne hartzen duena. Beraz, aseguru



honek estaliko ditu erabiltzaileak hirugarrenei sorturiko kalteak, lokalaren jabetzari eragindakoak barne.

- Lokalean dauden eta erabiltzailearen jabetzakoak diren ondasun higigarriak babesteko aseguru (aukerazkoa).
- Alderdi bakoitzaren bestelako betebeharrak eta eskubideak.
- Erabilera-baimena edo lagapen-akordioa azkentzeko baldintzak.
- Lagapen- edo erabileraren epean lokalak partekatzeko aukera, hala badagokio.

Baimenaren edo lagapenaren baldintzak eta hura formalizatzeko agiria publikoak izango dira, eta Udalaren webgunean eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira. Halaber, Ondasunen Erroldan inskribatuko dira honako datu hauek: entitate hartzailea, erabilera-epea, eta erabakiaren data.

#### **10. Erabilera-baldintza orokorrak.**

Araudi honen eremuan sartzen diren higiezinak edo lokalak elkarte edo kolektibo baimenduek edo lagapen-hartzaileek erabili beharko dituzte, aurkeztutako proiektuan eta estatutu-helburuetan alde zuzenetik ezarritako jarduera edo eginkizunetarako. Horretaz gain, ondoko baldintza orokorrak bete behar dituzte:

- a) Higiezin baten erabilera erakunde bakar bati edo batzuei laga edo baimendu dakieke, modu partekatuan erabili ahal izateko. Azken kasu horretan, lagapena edo baimena formalizatzen den tresnan zehaztu beharko dira lagapen-hartzaile edo baimendutako erakunde bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
- b) Jarduera adingabeek egiten badute, pertsona heldu arduradun batek izango du haien erantzukizuna.
- c) Erabilera partekatuko lokalen kasuan, eskabideak berariaz eta zehatz-mehatz adieraziko du lokalaren mantentze, zaintza eta garbiketarik eratorritako kargak erakunde erabiltzaile guztien artean banatzeko sistema, eta zenbait irizpide erabil daitezke, hala nola azalera okupatuari edo erabilera-intentsitateari buruzkoa.
- d) Udal lokalen lagapen-hartzaile diren elkarte edo kolektibo guztiek berariaz ahaldundutako kide bat izendatu beharko dute Udalarekin solaskide izateko, lokalaren erabilerarekin eta kudeaketarekin zerikusia duen guztirako. Solaskide hori bakarra izango da lokal bakoitzerako, erabilera partekatukoetan barne.
- e) Elkarte edo kolektibo bakoitza izango da bere kide eta/edo erabiltzaileek haien esku jarritako lokaletan hirugarrenei eragindako kalte-galeren zuzeneko erantzulea, dela ekintzagaririk, dela omisio, dolo edo zabarkeriagaririk. Udala bera izango da hirugarrenaren izaera izango duena.



- f) Elkarte edo kolektibo onuradunek 9. artikuluko c) atalean xedaturiko aseguru-polizak hitzartuta dituztela justifikatu beharko dute, bai eta dagozkion ordainagiriaren ordainketak ere, erabileraren baimena edota lagapena onartzen duen erabakia jakinarazi eta hamabost laneguneko epean. Horrela ez balitz, erabilera baimena edota lagapena bertan behera geldituko dira eta elkarte edo kolektiboak hustu egin beharko du lokala, eta giltzak itzuliko dizkio Udalari.
- g) Halaber, Udalari eman beharko dizkiote aseguru kontratuen eta ordaindutako hurrengo ordainagiriaren jatorrizko kopia elektronikoak, espedientean sartuko direnak.
- h) Debekatuta daude honako jarduera hauek:
- Erabilitako lokalaren barruan, eta elkartearen autonomia errespetatuz, ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin; beraz, debekatuta dago indarkeriazko edozein ekintza egitea, edo norbanakoak edo taldeak diskriminatzea, arraza, migrazio prozesua, sexua, erlijioa, iritzia, desgaitasuna, sexu-orientazioa, sexu-identifikazioa, sexu adierazpen edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexista erabili beharko da; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu beharko da; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren edo genero-identitateen balioak barne hartzen dituen irudia sustatu beharko da.
  - Irabazi-asmoekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
  - Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera, bereziki gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen direnak.

## 11.- Lokala entregatzea

Lokalak erabiltzeko baldintza normaletan entregatu beharko dira.

Entregatzeko unean, elkarte edo kolektiboaren ordezkariak higiezina jasotzeko akta bat sinatu beharko du (V. eranskina), eta bertan zehaztuko da zer baldintzatan entregatuko duen Administrazioak higiezina. Akta Udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoek egindako ereduarekin bat etorriko da.

Entrega-akta, elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Saileko arduradunek (teknikoak zein politikoak) izenpetuko dute elkarte edo kolektiboaren ordezkariarekin.



## 12.- Obrak eta lizentziak

Lokalak edo higiezinak egokitze-obrak behar baditu, kasuz kasu aztertuko da obra horien sustatzailea zein izango den, interes publikoko arrazoietan oinarrituta. Halaber, lanak exekutatuko dira irizpide sozialak, ingurumen-iraunkortasunekoak eta energia-eraginkortasunekoak kontuan hartuta. Herritarren elkarte edo kolektibo onuradunek ezin izango dute lagatako lokal edo higiezinan inolako obra edo jarduketarik egin Tolosako Udalaren alde aurreko baimenik gabe, eta alde aurreko jakinarazpena, erantzukizunpeko adierazpena edo udal-lizentzia beharko dute. Era berean, bertan egingo diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein udal-lizentzia edo bestelako lizentzia eduki beharko dute.

Erakunde baimenduek edo lagapen-hartzaileek diseinurako eta eraikuntza kolektiboetarako prozesu esperimentalak proposatu eta horietan parte hartu ahal izango dute, eta dagozkien lizentziak edo baimenak izan beharko dituzte.

Baimendutako edo lagapen-hartzaileek egindako obrek edo jarduketek onura ekarriko diote ondasun higiezinari, eta elkarte edo kolektibo erabiltzaileak edo baimenduak ez du inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

Artikulu honetan xedatutakoa urratuz gero, Udalak lokalaren erabilera elkarte horri lagatzeko edo baimentzeko erabakia ezeztatu ahal izango du, edo, bestela, ondasuna jatorrizko egoerara itzultzeko agindu ahal izango du, kalte-ordainerako edo konpentsazio ekonomikorako eskubiderik gabe. Hori egin ezean, Udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu itzulketa-lanak, eta erakundeak kostua ordaindu beharko du. Itzulketa ezinezkoa bada ondasuna kaltetu gabe, kausatzaileak kalte-ordaina eman beharko du eragindako kalteengatik.

## 13.- Elkarte eta kolektibo erabiltzaileen betebeharrak

Honako hauek zehaztuko dira ebazpenean:

- a) Lagapen-akordioan edo baimena jasotzen duen ebazpenean ezarritako erabilera-ordutegiak edo Tolosako Udalak baimentzen dizkion beste batzuk errespetatzea.
- b) Lagatako edo baimendutako espazioa elkarte edo kolektiboaren helburuetarako erabiltzea, bere jarduera-programa gauzatzuz, bai eta lagapen-erabakiak edo Udalak baimendu ditzakeenak ere.
- c) Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea; publizitatetzat joko da zerbitzu eta/edo ondasun higigarri edo higiezinaren erosketa/salmenta edo kontratazioa, zuzenean edo zeharka, erraztea edo sustatzea helburu duen komunikazio mota oro.
- d) Esleitutako espazioak errespetatzea, bai eta lokala partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuei ere, haien jardueren garapen normala oztopatu gabe.



- e) Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.
- f) Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera eskusiboko eta erabilera partekatuko lokalak, bai eta, oro har, higiezin osoa ere, hala badagokio, baita altzariak ere, eta kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo ez-egitez, eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna izango dute, eta horrelakoetan, berehala eta Udalaren baimenarekin, beharrezko konponketak egin beharko dituzte. Erakunde onuradunari dagokio lagapenean edo baimenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.
- g) Elkarte edo kolektiboek, lagatako edo baimendutako lokalaren mantenuko gastu arrunten (kontsumoak, konponketa edo birjarpen txikiak) ardura izango dute, Udalak justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- h) Erabilera-ordutegiak dirauten bitartean, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta inguruko lasaitasuna ez haustea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuz.
- i) Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabiltzeko gordetzea.
- j) Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta atak ixtea, erabiltzen duen azken erakundea denean, lagapen-erabakiak besterik xedatzen ez badu. Aldi berean, lagatako espazioen erabilera egokia zainduko dute, eta erabiltzaileen zaintza eta kontrola egingo dute.
- k) Esleitu zaion espazioaren erabilera ez lagatzea hirugarrenei, ez osorik ez zati batean, elkarteko kide izan edo ez.
- l) Sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea Tolosako Udalari. Horretarako, erreferentziatzko Sailarekin harremanetan jarriko da elkarte edo kolektiboaren ordezkaria/solaskidea.
- m) Tolosako Udalari itzultzea lagapen-erabakia iraungi edo ezeztatu ondoren lagapenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera, jatorrizko egoeran, erabilerak eragindako higadura aintzat hartu gabe.
- n) Udalari uneoro baimena ematea indarrean dagoen araudia eta erabilera lagatzeko edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan, guneetarako sarbidea ahalbidetuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanaz.
- o) Tabakoa eta/edo edari alkoholduak eta osasunerako kaltegarriak diren beste substantzia batzuk (drogak, substantzia sorgogarri psikotropikoak) kontsumitzea eta haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik ez instalatzea eta, ezta publizitate sexista instalatzea ere.
- p) Beste elkarte edo kolektibo batzuek lokalaren erabilera ahalbidetzea, Udalak salbuespen gisa baimendutako unean uneko jarduerak garatzeko. Jarduera



horiek ez dute inola ere ekarriko lagapen-hartzailearen edo lagapen-hartzaileen erabilera pribatuko espaziorik, hala nola bulegoak edo artxiboak.

- q) Erabiltzaileak bete beharko du Tolosako Udalak euskararen erabileraren normalizazioari begira indarrean duen plana. Hala, bermatu beharko du euskaraz edo ele bietan ematea, kalitate egokian, lokalean edo higiezinan jartzen dituen errotulu, ohar edo gainerako komunikazio orokorrak.
- r) Halaxe jardun beharko du, era berean, bai jarduerak iragartzeko garaian, bai haiek gauzatzekoan. Hori horrela, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan zabalduko ditu herritarrei zuzendutako komunikazio guztiak, izan idatzizkoak (publizitatea, esku programak, iragarkiak, oharra eta abar) izan ahozkoak (megafonia bidezko mezuak, aurkezpenak eta abar).
- s) Idatzizkoetan, ele bietan jartzen direnean, euskarari eman behar zaio lehentasuna eta nabarmendu (handiagoa, lodiagoa...). Baina testua euskara hutsean idatziko da hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, edo ezagunak direnean.
- t) Bestalde, piktograma (irudia) baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira: su-itzalgailuak, komunak...
- u) Jardueretan, ahozkoan ere euskarak lehentasuna izango du, hau da, euskaraz arituko dira lehenengo eta gaztelaniaz ondoren, baina ez dauka zertan hitzek hitzeko itzulpena izan.

Gogorarazi behar da Euskara eta Hezkuntza Sailera jo dezakeela erabiltzaileak laguntzarik behar izanez gero testuren bat itzultzeko edo euskaraz idazteko ([euskara@tolosa.eus](mailto:euskara@tolosa.eus)).

#### 14.- Udalaren betebeharrak

Arau orokor gisa, ordenantza hau aplikatzen eta administrazio publikoen ondasunak kudeatzearen eta kontserbatzearen arloan indarrean dagoen legeriatik eratorritako udal-betebeharrak dira.

Udalak zuzenean kudeatzen dituen eta erabilera partekatuko araubide bati lotuta dauden zentroetan, Udalak erabilera komuneko espazioak edo lokalak osasungarritasun- eta higiene-baldintza onenetan gorde beharko ditu.

Era berean, Udalarari dagokio obrak edo jarduketak egitea lokalen egiturazko elementuak mantentzeko, konpontzeko edo birjartzeko. Halakotzat hartuko da eraikinaren egiturari, paramentu bertikalei eta estalkiei eta zerbitzuen kanpoko harguneei eragiten diena, baldin eta zentroaren erabilera ohiko eta arruntagatik badira, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira erakunde erabiltzaileen konturako betebeharrak gisa ezartzen direnak.



Tolosako Udalari dagokio jabekideen erkidegoari dagozkion kuotak ordaintzea, jabetza horizontalaren araubideari atxikitako higiezinetan kokatutako lokalen kasuan.

Udalak bermatu behar du lokalen erabiltzaileek erreferente bakarra izatea, hain zuzen, Erreferentziazko Sail bat izatea. Erreferente hori erabileraren xede nagusiarekin lotura duen Saileko arduradun teknikoa izango da.

Horretaz gain, Udalak hauek egin eta indarrean izango ditu:

- Kalte edo lapurreten aurrean jarduteko protokoloa.
- Lokalen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko lanen plangintza.
- Erabilera partekatuko lokalen barne-araudia.

#### **15.- Baimen edo lagapenaren epea**

Lagapen edo erabilera baimenaren gehieneko epea lau urtekoa izango da, eta berritu ahal izango da elkarteak edo taldeak aurrez horrela eskatuz gero, beti ere Araudi honetako baldintzak betetzen baditu.

Lagapena edo erabilera baimena prekarioan egiten denez, Udalak edozein unetan iraungitzat jo ahal izango du, hilabete aurretik interesdunari horrela jakinaraziz gero, inolako kalte-ordainik ordaindu beharrik gabe.

Baimena edo lagapena deuseztatzeko arrazoia izango da Araudi honen betebeharraren bat ez betetzea. Kasu horretan, deuseztapenaren aurretik, Udalak entzunaldia eskainiko dio entitateari alegazioak egin ahal izateko. Horretarako, 15 eguneko epea izango da.

#### **16.- Baimenaren edo lagapenaren jarraipena.**

Elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Sailak baimenaren edo lagapenaren jarraipena egingo du, erakunde lagatzailearekin edo baimenduarekin koordinatuta, eta, baimenaren edo erabilera-lagapenaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean, beste gobernu-arlo batzuetako teknikarien laguntza eskatu ahal izango dute.

Jarraipena, besteak beste, honako zeregin hauetan egingo da:

- Lagatuko lokal edo higiezinan garatu beharreko proiektua behar bezala garatzen dela zaintzea.
- Proiektua behar bezala garatzeko baldintza material onenak ematea.
- Sor daitezkeen zailtasun edo arazoei konponbidea ematea, betiere adostasunaren eta gatazkak erkidegoan konpontzearen alde eginez.

Bereziki, egoera hauetan kontuan hartuko dira Tolosako udalak onartutako jarraibideetan xedaturiko irizpideak, beti ere elkarte edo kolektiboaren lan-esparruarekin lotura duen Sailaren ekimenez:



- a) Lapurreten kasuan, Tolosako Udalak onartutako instrukzioan jasotako protokoloa jarraituko da.
- b) Matxura edo konponketak egin beharreko kasuetan, Konponketa- edo birjarpen-lanak Udalari badagozkio, Tolosako Udalak onartutako prozedura jarraituko da.

#### **15.- Araubidearen jarraipen-taldea (aukerazkoa)**

*Araubide hau ahalik eta ondoen kudeatzen dela eta gauzatzen diren gizarte-proiektuak ahalik eta hobekien garatzen direla bermatzeko, jarraipen-talde bat eratu ahal izango da, udal-politikak koordinatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko, kulturarako, kirolerako, ondarerako eta gizarte-zerbitzuetarako eskumenak dituzten gobernu-arloetako ordezkariak osatua.*

- *Jarraipen-talde horren xede izango dira:*
- *Araudiaren aplikazio optimoa eta baimenak eta erabilera-lagapena finkatutako irizpideetara egokitzen diren ebaluatzea.*
- *Baimenen batean edo erabilera-lagapenen batean sortutako gatazketan bitartekari izatea.*
- *Araudiaren testuari, behar izanez gero, hobekuntzak proposatzea.*
- *Higiezin edo lokal publikoen herritarren eta komunitatearen kudeaketari buruzko trukerako eta prestakuntzarako udalen arteko topaketak sustatzea eta/edo horietan parte hartzea.*

#### **17.- aholkularitza teknikoa (aukerazkoa)**

*Udalak irabazi-asmorik gabeko herritarren entitateen eskura jarri ahal izango du aholkularitza teknikoa, sailetan udal-politikak nola gauzatzen diren koordinatzeko eta gainbegiratzeko eskumena duten gobernu-arloko langileek eta, hala badagokio, kulturaren eta herritarren parte-hartzea sustatzeko eskumena duten gobernu-arloko langileek emandakoa, bai eta ondareari buruzko eskumena duen gobernu-arloko langileek emandakoa ere.*

*Aholkularitza teknikoak elkarrengandik ikasteko gune bat sustatuko du herritarren eragileen eta udal langileen artean, lagatuko udal higiezin edo lokaletan garapen komunitarioko proiektuak ahalik eta hobekien garatzeko.*

*Ikaskuntza-espaziotzat hartzen da Araudi honen garapenetik eta aplikaziotik ateratako esperientzien, informazioen eta praktiken multzoa.*





### ERANSKINA 1

**Entitatearen datuak / Datos de la entidad:**

<b>Entitatearen izena</b> Nombre de la entidad		<b>IFK</b> <b>CIF</b>
<b>Entitatearen egoitza/Domicilio social</b>	<b>Elkarteen erregistroa</b> Bai:      Ez: <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	
<b>Telefonoa</b>	<b>E-mail</b>	

**Ordez kariaren datuak/ Datos de la persona representante:**

<b>Izen-abizenak/ Nombre y apellidos</b>		<b>NAN-AIZ/DNI-NIE</b>
<input type="checkbox"/> <b>Emakumea/ Mujer</b>	<input type="checkbox"/> <b>Gizona/Hombre</b>	<input type="checkbox"/> <b>Bestelako generoa/Bestelako Identitateak(*)</b> Otros géneros/Otras identidades (*)
<b>Helbidea/Domicilio</b>	<b>Herria/Población</b>	<b>PK/CP</b>
<b>Telefonoa</b>	<b>E-maila</b>	

**Udalarekin solaskide izango den pertsonaren identifikazioa eta kontaktua/ Identificación y contacto de la persona interlocutora con el Ayuntamiento:**

<b>Izen-abizenak/ Nombre y apellidos</b>		<b>NAN-AIZ/DNI-NIE</b>
<b>Helbidea/Domicilio</b>	<b>Herria/Población</b>	<b>PK/CP</b>
<b>Telefonoa</b>	<b>E-mail</b>	

**Erabilera baimena/lagapena/ Local cuya autorización de uso/cesión de uso se solicita:**

<b>Helbidea/Dirección:</b>
<b>Baimena/lagapena xedea: Objeto de la autorización/cesión:</b>
<b>Erabiltzeko modua/ Modo de uso:</b>
<input type="checkbox"/> <b>Era eksklusiboan/Usos exclusivos.</b>  <input type="checkbox"/> <b>Modu partekatuan/Modo compartido (Kasu horretan, kolektibo edo elkarten zerrenda aipatzen da). /En este caso, se acompaña relación de los colectivos o asociaciones):</b> -- -

\* **Baimenaren/lagapenaren iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, espreski, lau urtera arte/La duración de la autorización de uso/cesión será de un año prorrogable anualmente, expresamente, hasta cuatro.**

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



**UDALAK KONTSULTATUKO DITUEN  
DATUEN INFORMAZIOA**

39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatuko ditu bere datu-baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, **Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan**, laguntza lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar dituen datuak, bereziki, honako hauek: **Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea, eta enpresaren datuak.**

Datuak kontsultatuak izan daitezzen aurka nago. **Aurka egonez gero, justifikatu arrazoiak (21 art. Regl. (EB) 16/679).....**

**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

1.1.- Erabilera partekatua bada, erabilera partekatua nahi duten elkarten zerrenda.

1.2.-Erakundeak egiten dituen jardueren memoria, non eta ez den lehendik ere agertzen udaletxean.

1.3-Eskatutako lokalean egin nahi den proiektua, Tolosako biztanleen onerako izango dela justifikatuz. Gutxienez, ondorengo atalak izango ditu Proiektutak:

Lokala erabiltzeko beharrak edo arrazoiak. Aurreikusitako jardueren deskribapena, bai antolakundearen antolaketa-beharretatik eta barne-funtzionamendutik eratorritakoak, bai kideen mesederako edota kanpo-proiektzio publikoa duten zerbitzuak ematea dakartenak.

Lokala erabilera eskusiboko araubidean eskatzen bada, erakundeak beste erakunde onuradun batzuekin partekatutako erabilera-erregimen bat onartzeko aukera adierazi beharko du.

Aurkeztutako jarduketa-proiektuaren arabera, lokalaren ezaugarrien, kokapenaren, erabilera zehatzen eta lokalaren espazio eta instalazioetan aurreikusitako erabilera-ordutegien gutxi gorabeherako deskribapena.

Aurreikusitako jarduerak garatzeko elkarteak edo kolektiboak dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.

Proiektuan deskribatutako jardueren eta zerbitzuen erabiltzaile kopurua aurreikustea.

Lokalaren erabilera epea:

Elkarteak lokala mantentzeko erabiliko duen aurrekontua, bere kasuan.

Azkeneko ekitaldian jasotako diru-laguntzen zerrenda, jatorria eta diruz lagundutako jarduerak adieraztea.

Eskatzen den proiektuan deskribatutako jarduera eta zerbztzuaren erabiltzaile kopurua aurreikustea.

**INFORMACIÓN SOBRE DATOS  
QUE CONSULTARÁ EL AYUNTAMIENTO.**

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015, el ayuntamiento de Tolosa consultará directamente en nuestras bases de datos y, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE en la **Hacienda Foral de Gipuzkoa y en la TGSS**, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la ayuda, y en particular los siguientes datos: **estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias en la Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social, y los datos de la asociación o persona.**

Me opongo a que los datos sean consultados. **En caso de oposición, justifique las razones (art. 21 Regl. (UE)16/679).....**

**DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR:**

1.1- En caso de uso compartido, relación de Asociaciones que pretenden el uso compartido.

1.2.-Memoria de las actividades que realiza la entidad, salvo que figure con anterioridad en el Ayuntamiento.

1.3-Proyecto que se pretende realizar en el local solicitado, justificando que redundará en beneficio de los habitantes de Tolosa. El Proyecto constará, como mínimo, de los siguientes apartados:

Necesidades o razones de uso del local  
Descripción de las actividades previstas, tanto las derivadas de las necesidades organizativas y funcionamiento interno de la organización, como las que suponen la prestación de servicios en beneficio de sus miembros y/o con proyección pública externa. En el caso de que se solicite el local en régimen de uso exclusivo, la entidad deberá indicar la posibilidad de aceptar un régimen de uso compartido con otras entidades beneficiarias.  
Descripción aproximada, según el proyecto de actuación presentado, de las características y ubicación del local, usos concretos y horarios de uso previstos en los espacios e instalaciones del local.

Los recursos materiales y humanos de que disponga la asociación o colectivo para el desarrollo de las actividades previstas.

Plazo de uso del local.  
Presupuesto destinado por la Asociación al mantenimiento del local, en su caso  
Relación de las subvenciones recibidas en el último ejercicio, su procedencia y las actividades subvencionadas

Prever el número de personas usuarias de las

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



Eskatutako baimen eta lagapen-mota garatu nahi diren jardueretara egokitzen delako justifikazioa.

actividades y servicios descritos en el proyecto que se solicita.

Justificación de la adecuación del tipo de autorización y cesión solicitada a las actividades que se pretenden desarrollar.

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

**DECLARACIÓN RESPONSABLE**

Nik, aurreko datuen titularra naizen honek, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezten dut:

Yo, titular de los datos anteriores, presento la siguiente declaración responsable:

Erabilera eksklusiboa- Erakunde onuradun batekin edo batzuekin partekatutako erabilera onartzen dut, araudi baten arabera

Uso exclusivo- Acepto el uso compartido con una u otras entidades beneficiarias bajo una normativa

Erabilera partekatua- Elkarteen zerrenda:

Uso compartido- Acompaño relación de Asociaciones:

- 
- 
- 

- 
- 
- 

Eskaera partekatua bada, nire gain hartzen dut baimenaren/lagapenaren titulartasuna.

En caso de solicitud compartida asumo la titularidad de la autorización, cesion.

Ez dudala Administrazioarekin kontratatzeko debekurik eta bateraezintasunik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean nagoela eta Tolosako udalarekin betearazpen-aldian zerga-zorrik ez dudala.

Que no estoy incurso en ninguna prohibición o incompatibilidad para contratar con la Administración, que me hallo al corriente de mis obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y que no tengo deudas tributarias con el Ayuntamiento de Tolosa en periodo ejecutivo.

Ezagutzen dudala lokala erabiltzeko betebeharrak eta hauek beteko ditudala, besteak beste:

Que conoce las obligaciones de uso del local y se compromete a cumplirlas, entre otras:

Ordaintzea elektrizitate-ur eta gas-kontsumoak, zabor gastuak eta gainerakoak. Baita aktibitateak sortutakoak ere (salbu eta betebeharrak horietatik salbuetsita badago).

Pagar los consumos de agua eléctrica y gas, gastos de basura y demás. También los generados por la actividad (salvo que esté exento de tales obligaciones).

Lokala kontserbatzea eta zaintzea eta egoki diren konponketa handi nahiz txikiak egitea hori horrela mantentzeko (salbu eta betebeharrak horietatik salbuetsita badago).

Conservar y mantener el local y realizar las reparaciones necesarias para su mantenimiento (salvo que esté exento de tales obligaciones).

Erantzun egingo du egiten duen jardueraren ondorioz edo soikik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik. Erantzukizuneko poliza egin behar du higiezei, pertsoneri edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta agutxieneko kopurua 300000 eurokoa izango da.

Responderá por los daños causados como consecuencia de la actividad que realice o como consecuencia de la ocupación del espacio. Deberá suscribir una póliza de responsabilidad ante daños causados a inmuebles, personas o terceros por un importe mínimo de 300000 euros.

Eta horrela jasota gera dadin, adierazitakoa egia dela aitortzen dut eta agiri hau sinatzen dut.

Y para que así conste, declarando ser cierto lo manifestado, firmo el presente documento.

Urtea/ Año	Hilabetea /Mes	Eguna / Día	Eskatzailearen sinadura /Firma del/de la solicitante

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



## ERANSKINA 2

### TXOSTEN TEKNIKOAK JARRAITU BEHAR DUEN ESKEMA

#### AURREKARIAK:

.....Elkarteak,.....-sarrera erregistroa duen eskaria- ondoren deskribatzen den lokala erabiltzeko/lagatzeko baimena eskatu du:

(lokala deskribatu Idazkaritzak emandako fitxaren arabera).

Eskariarekin ondoko dokumentazioa aurkeztu du:

-ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua.

-Elkarte edo kolektiboak azken urtean egindako memoria (ez badu aurkeztu udalean egon behar du).

- Jardueren proiektua, ondoko atal hauekin:

- Lokala erabiltzeko beharrak edo arazoak
- Aurreikusitako jardueren deskribapena, bai erakundearen antolaketa-beharretatik eta barne-funtzionamendutik eratorritakoak, bai kideen onurarako zerbitzuak ematea dakartenak eta/edo kanpoko proiektio publikoa dutenak.
- Burutu nahi den erabilera-araubidea, zera, erakundearen beraren onurarako bakarrik edo beste elkarte edo kolektibo batzuekin batera erabiltzeko.
- Lokala erabilera eskusiboko erregimenean esleitzea eskatuz gero, erakundeak beste erakunde onuradun batzuekin erabilera partekatuko araubide bat onartzeko aukera duela adierazten duen adierazpena.
- Gutxi gorabeherako deskribapena, aurkeztutako jarduera-proiektuaren arabera, lokalaren ezaugarriari eta kokalekuari, erabilera zehatzei eta lokalaren espazio eta instalazioetan aurreikusitako erabilera-ordutegiei buruzkoa.
- Elkarteak edo kolektiboak aurreikusitako jarduerak garatzeko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Lokalaren erabilera epea.
- Elkarteak lokala mantentzeko erabiliko duen aurrekontua, bere kasuan.
- Azkeneko ekitaldian jasotako diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerak adierazita.
- Eskatzen den proiektuan deskribatutako jarduera eta zerbitzuen erabiltzaile-kopurua aurreikustea.

Eskatutako baimen eta lagapen mota garatu nahi diren jardueretara egokitzen dela justifikatzea.



## TXOSTENA:

Eskariarekin aurkeztutako dokumentazioa aztertu da. Egiaztatu dira ere, eskariarekin egindako adierazpenak. Elkarte erakundeak edo kolektiboak ez du irabazi asmorik.

Aurkeztutako eskaerak eta berarekin doan dokumentazioak udal jabariko lokalak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegiaren xedapenak betetzen ditu.

Beraz, dokumentazioa osatuta dago. (Horrela izango ez balitz errekerimendua luzatuko zaio, goian aipaturiko Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaera zuzendua izan dadila ondorengo kasuetan: instantzia gaizki beteta egongo balitz, daturen bat faltako balitz, dokumenturen bat faltako balitz e.a.)

Memoria aztertu da eta hauek dira ondorioak : (justifikatu ihardueraren interesa herriarentzat).

Aurkeztutako proiektua aztertu da . Honek, udal jabariko lokalak erabiltzeko araudiak, bere 6.apartaduan xedatutako esleipen irizpideak betetzen ditu:

(justifikatu ondorenak):

- Eskatzaileek beren jarduera Tolosan egitea, edo elkartearen bulegoa edo ordezkariak iraunkorra Tolosan egotea.
- Aurkeztutako proiektuak lankidetzaz publiko-sozialekoak izatea, herritarren parte-hartzea sustatzea, garapen komunitarioa sustatzea edo hiri-bizitzaren kalitatea hobetzera, berdintasuna defendatzera, gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzera edo Tolosako biztanleen onurarako diren eta udal-eskumenekoak diren gizarte-intereseko helburuak lortzera bideratuta egotea.
- Eskatutako espazioaren erabilera partekatua izatea, betiere eskatzaileen jarduerak bateragarriak badira.
- Elkarte eta kolektiboek garatzen dituzten jarduerak, gehienbat, irekiak, doakoak eta inklusiboak izatea.

Proiektua azalduko da laburpen bat eginez:.....

Proiektu honek duen interes soziala edo inpaktu soziala aztertuko da eta justifikatuko da, kontuan hartuz ondorengoak:

- Elkarte edo kolektiboak duen beharra.
- Herritar orori irekitako jarduerak izatea.
- Lokalaren egokitasuna, garatu behar diren erabilerekoak.
- Entitatearen ibilbidea
- Entitatearen adierazgarritasuna, dagokion eremuan (kideen kopurua)
- Proiektuaren ezaugarri teknikoak eta operatiboak: proiektuaren lanketa-, xehetasun- eta zehaztasun-maila, kalitate teknikoa helburuak zehaztuta,



metodologia, tenporalizazioa, ebaluatzeko baliabideak eta mekanismoak, koordinazioa eta egungo baliabideekiko osagarritasuna.

- Koordinatzaileak, federazioak edo erakundeak elkartzeko beste modu batzuk izatea.

Proiektua aztertu ondoren, ondorengoak ere aztertu dira:

Jardueren ordutegia (justifikatu bere egokitasuna).

Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak (horretarako Idazkaritzatik prestatutako akordio ereduak erabiliko dira)

Lokaleko mantentze- eta konponketa- edo birjartze-gastu txikiei aurre egiteko betebeharrari dagokionez, Udalak ordaintzea justifikatzen duen salbuespenezko egoera bat egon daitekeela justifikatzea.(BERE KASUAN)

Erabileraren baldintzak.

Lokalean egon daitezkeen eta erabiliko diren ondasunen zerrenda.

Tolosan,.....ko.....

Erreferentzizko Departamentu Arduradunak sinatua



### ERANSKINA 3

#### EBAZPEN EREDUA ERAIKINA DEMANIOZKOA DENEAN

AURREKARIAK AZALDU:.....datarekin..... Elkartek ondorengo lokalaren erabilera eskatu du.....Proiektu hau garatzeko.....

Teknikariak.....datarekin egindako txostenean ondokoa azaldu du:

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikulua kontuan hartuta, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehena.-** ..... demaniozko baimena ematea helbide honetan..... dagoen lokala erabiltzeko.

Lokal hau horrela dago deskribituta udal ondare inbentarioan:

**(Fitxa eskatu idazkaritzan)**

Eranskinean, lokal horretako ondasun higigarriak eta ekipamendua deskribatzen dira (**Bete eranskina**).

**Bigarrena.-** Demaniozko baimen hori .....ondorengo proiektua garatzeko ematea:

**(Deskribatu Proiektua)**

**Hirugarrena.-** Erabileraren ezaugarri hau finkatzea: urte beterako emango da eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da, urteko berariazko akordioa lortu ondoren.

Ondorengo ordutegian erabili izango da:.....

Era berean, dohain izaeraz ematen da.

**Laugarrena.-** Deskribatutako programa exekutatzeko sortuko dituen aktibitateen gastu guztiak baimenduari ezartzea. Era berean, bere kargura izango dira elektrizitate-ur eta gas-kontsumoak, zabor gastuak eta gainerakoak.

**Bosgarrena.-** Baimenduaren ardurak izatea, lokala kontserbatzea eta zaintzea eta egoki diren konponketa handi nahiz txikiak egitea hori horrela mantentzeko.

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko baimenduak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du baimenduari ebazpen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

a) Debekatuta daude honako jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan, eta elkartearen autonomia errespetatuz, ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin; beraz, debekatuta dago indarkeriazko edozein ekintza egitea, edo norbanakoak edo taldeak diskriminatzea, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, sexu-orientazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- Irabazi-asmoekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera, bereziki gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen direnak.

b) Besteak beste, baimenduak ondorengo betebeharrak izango ditu:

- Erabilera-ordutegiak dirauten bitartean, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta zonako lasaitasuna ez nahastea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuz.
- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.
- Esleitutako espazioak errespetatzea, bai eta lokala partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuei ere, haien jardueren garapen normala oztopatu gabe.
- Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.
- Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera eskusiboko eta erabilera partekatuko lokalak, bai eta, oro har, higiezin osoa ere, hala badagokio, baita altzariak ere, eta beren kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo ez-egitez, eragin ditzaketan kalteen erantzukizuna izango dute, berehala eta Udalaren baimenarekin, beharrezko konponketak eginez. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.
- Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higiezin-baldintza egokietan erabiltzeko gordetzea.
- Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ixtea, erabiltzen duen azken erakundea denean, erabilera-baimenak besterik xedatzen ez badu. Aldi berean, baimendutako espazioen erabilera egokia zainduko dute, eta erabiltzaileen zaintza eta kontrola egingo dute.
- Esleitu zaion espazioaren erabilera ez lagatzea baimenduta ez daudenei.





- Sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea Tolosako Udalari. Horretarako, erreferentziatzko Departamentuarekin harremanetan jarriko da elkarte edo kolektiboaren ordezkaria/solaskidea.
- Tolosako Udalari itzultzea emandako baimena iraungi edo ezeztatu ondoren lagapenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera, jatorrizko egoeran, erabilerak eragindako higadura izan ezik.
- Udalari uneoro baimena ematea, indarrean dagoen araudia eta erabilera edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan, guneetarako sarbidea erraztuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanaz.
- Tabakoa eta/edo edari alkoholdunak eta osasunerako kaltegarriak diren beste substantzia batzuk (drogak, substantzia sorgogarri psikotropikoak) kontsumitu eta haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik ez instalatzea.

**Seigarrena.-** Ezartzea baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak kontserbazio eta erabilera egokian itzuli beharko duela erakuntza.

**Zazpigarrena.-** Agintzea baimena duenak erantzun egin beharko duela egiten duen jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsoneri dela ondasunei egindakoak). Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzungo du. Horretarako,erantzukizuneko-poliza egin behar du higiezinei, pertsoneri edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango da.

**Zortzigarrena.-**Baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharrakoren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu, baimena indarririk gabe geratuko dela ezartzea.

**Bederatzigarrena.-** Baimenduak Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa guztiz errespetatuko du.

**ERANSKINA:**

Lokalaren ondasun higigarriak eta ekipamendua deskribatzen dira:

.....  
.....

\_\_\_\_\_

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



## ERANSKINA 4

### EBAZPEN EREDUA ERAIKINA PATRIMONIALA DENEAN

**AURREKARIAK AZALDU:**.....datarekin..... Elkarteak ondorengo lokalaren erabilera eskatu du.....Proiektu hau garatzeko.....

**Teknikariak**.....datarekin egindako txostenean ondokoa azaldu du:

Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikulua kontuan hartuta, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehena.**- “.....”Elkarteari ondorengo lokalaren erabilera prekarioan lagatzea:

Lokal hau horrela dago deskribituta udal ondare inbentarioan:

( Fitxa Idazkaritzan eskatu).

Eranskinean , lokal horretako ondasun higigarriak eta ekipamendua deskribatzen dira  
**(Bete eranskina)**

**Bigarrena.**-*Erabilera prekariozko lagapen hau proiektu hau garatzeko ematen da (Deskribatu Proiektua)*

*Lokal horren prekariozko erabilera lagapena helburu horrekin ematen da eta beraz, .....entitateak ezin izango ditu erabili beste helburuetarako.Lagatako ondasuna ezarritako epean erabiltzen ez bada edo erabiltzeari uzten badiote, udalaren ondarrera itzuliko da eskubide osoz, eta udalaren ondarea, hala badagokio, eragindako kalte-galeren eta ondasunek izandako kalteen balioa jasotzeko eskubidea izango du.*

**Hirugarrena.**-Erabileraren ezaugarri hauek finkatzea:prekarioan, gehienez lau urterarte.

Ondorengo ordutegian erabili izango da:.....

Era berean,dohain izaeraz ematea, kontutan hartuz proiektuak duen interes soziala eta entitateak irabazi asmorik ez duela.

**Laugarrena.**-Deskribatutako programa exekutatzeko sortuko dituen aktibitateen gastu guztiak zesiiodunari ezartzea. Era berean, bere kargura izango dira elektrizitate-ur eta gas-kontsumoak, zabor gastuak eta gainerakoak.



**Bosgarrena.-** Zesiodunaren ardurak izatea, lokala hornitzea, kontserbatzea eta zaintzea eta egoki diren konponketa handi nahiz txikiak egitea hori horrela mantentzeko.

Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko zesiodunak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du zesiodunari ebazpen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko zesiodunak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du zesiodunari ebazpen honen eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

a) Debekatuta daude honako jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan, eta elkartearen autonomia errespetatuz, ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin; beraz, debekatuta dago indarkeriazko edozein ekintza egitea, edo norbanakoak edo taldeak diskriminatzea, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, sexu-orientazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- Irabazi-asmoekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera, bereziki gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuztat jotzen direnak.

b) Besteak beste, zesiodunak ondorengo betebeharrak izango ditu:

- Erabilera-ordutegiek dirauten bitartean, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta zonako lasaitasuna ez nahastea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuz.
- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.
- Esleitutako espazioak errespetatzea, bai eta lokala partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuei ere, haien jardueren garapen normala oztopatu gabe.
- Erabilera komuneke espazioen helburua eta xedea errespetatzea.
- Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera eskusiboko eta erabilera partekatuko lokalak, bai eta, oro har, higiezin osoa ere, hala badagokio, baita altzariak ere, eta beren kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo ez-egitez, eragin ditzaketan kalteen erantzukizuna izango dute, berehala eta Udalaren baimenarekin, beharrezko konponketak eginez. Erakunde onuradunari dagokio lagapenean edo baimenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.
- Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabiltzeko gordetzea.



- Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ixtea, erabiltzen duen azken erakundea denean, zesio-erabakiak besterik xedatzen ez badu. Aldi berean, lagatako espazioen erabilera egokia zainduko dute, eta erabiltzaileen zaintza eta kontrola egingo dute.
- Esleitu zaion espazioaren erabilera ez lagatzea baimenduta ez daudenei.
- Sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea Tolosako Udalari. Horretarako, erreferentziazko Departamentuarekin harremanetan jarriko da elkarte edo kolektiboaren ordezkaria/solaskidea.
- Tolosako Udalari itzultzea lagapen-erabakia iraungi edo ezeztatu ondoren lagapenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera, jatorrizko egoeran, erabilerak eragindako higadura izan ezik.
- Udalari uneoro baimena ematea, indarrean dagoen araudia eta erabilera edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan, guneetarako sarbidea erraztuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanez.
- Tabakoa eta/edo edari alkoholdunak eta osasunerako kaltegarriak diren beste substantzia batzuk (drogak, substantzia sorgogarri psikotropikoak) kontsumitu eta haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik ez instalatzea.

**Seigarrena.-** Ezartzea zesioaren indarraldia bukatutakoan, zesiodunak kontserbazio eta erabilera egokian itzuli beharko duela eraikuntza.

**Zazpigarrena.-** Agintzea lagapenak duenak erantzun egin beharko duela egiten duen jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsoneri dela ondasunei egindakoak). Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzungo du. Horretarako,erantzukizuneko-poliza egin behar du higiezinei, pertsoneri edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango da.

**Zortzigarrena.-**Zesiodunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharrakoren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu, zesioa indarririk gabe geratuko dela ezartzea.

**Bederatzigarrena.-** Zesiodunak Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa guztiz errespetatuko du.

**ERANSKINA:**

Lokalaren ondasun higigarriak eta ekipamendua deskribatzen dira:

.....  
.....

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



**ERANSKINA 5**

**ONDASUNA ENTREGATZEKO AKTA**

**ACTA DE ENTREGA DEL BIEN**

Tolosan, 2022ko \_\_\_\_\_, Udalaren ordezkaria den \_\_\_\_\_, eta elkartearen ordezkaria den \_\_\_\_\_, NAN zkoa duena.

En Tolosa, a \_\_\_\_\_, se encuentran presentes la persona representante del Ayuntamiento, \_\_\_\_\_, y la persona representante de la Asociación \_\_\_\_\_, con DNI nº \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ (e) (a) datan, \_\_\_\_\_ (e) ko erabakiaren bidez, \_\_\_\_\_ deskribatutako ondasuna erabiltzeko/lagatzeko baimena ematea erabaki zen.

En fecha \_\_\_\_\_ mediante acuerdo de \_\_\_\_\_ se acordó autorizar el uso/ceder el bien que se describe.

Udalak elkarte horri ondasun higiezin hau eta bere ekipamendua ematea da helburua:

La finalidad es la entrega, por parte del Ayuntamiento, a dicha Asociación, del siguiente bien inmueble con su equipamiento:

(Ondasuna eta ekipamendua deskribatu)

(Describir el bien y su equipamiento)

Egintza honen bidez, jabeak (Udala) erabiltzaileari \_\_\_\_\_ (Elkartea/Erakundea) ematen dio deskribatutako ondasuna.

Por medio de este acto, el Ayuntamiento entrega a la persona usuaria (Asociación/Entidad) el bien descrito.

Jabeak aipatutako higiezina entregatzen du eta erabiltzaileak bere adostasun osoa jasotzen du.

La persona propietaria entrega y la persona usuaria recibe a su entera conformidad el inmueble referido.

Erabiltzaileak higiezina egoera onean jasotzen duela adierazten du.

La persona usuaria manifiesta recibir en buen estado el inmueble.

Adostasun-seinale gisa sinatzen da.

Es suscrito en señal de conformidad.

Jabea/ La persona propietaria

Erabiltzeko baimena duena/La persona autorizada al uso

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu



Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, hasierako onarpena eman dio gehiengoz onartu du Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegiari

**3. EZ ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK ALDATZEKO BPXPORT ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua
Unitate sustatzailea	Kirol Saila
Espedientea	2021CSER0002

**II.- AURREKARIAK**

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Hirugarrena.- 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari. Lizitazioa arautu zuen administrazio baldintza partikularren pleguan hau zehaztu zen: *“Plegu honekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomikoa guztiak lortu dira. Azterketa ekonomikoa hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.”*

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak.



Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI, S.L.U. enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua formalizatzen zenetik kontatzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta -baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Seigarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2022ko otsailaren 23an, udalbatzak onartu zuen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000 euro.

Zazpigarrena.- Adjudikazio ebazpena lizitatzaille eta hautagai guztiei legearen arabera jakinarazi eta gero, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak kontratazio-arloko errekurtsio berezi bat jarri zuen ebazpenaren kontra. Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, 2022ko uztailaren 5eko 116/2022 (EB 2022/050) Ebazpenaren bidez, aipatutako errekurtsio hori ezetsi eta esleipen prozeduraren etendura kentzea erabaki zuen.

Zortzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen Tolosako Udalaren eta BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresaren artean Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua.

Bederatzigarrena.- 2022ko azaroaren 29, 2022-12616 sarrera zenbakiarekin, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak idatzi bat aurkeztu zuten Udalean hau eskatuz (laburtuta):

...

*SEGUNDO.- Que, como es por todos conocido, durante el año 2022 se ha producido un exagerado aumento de los precios de todos los bienes y servicios del mercado, un encarecimiento sumamente relevante, registrándose tasas realmente elevadas de inflación, incluso alcanzando niveles de récord históricos.*

...

*En definitiva, es notorio que en el año 2022 se ha producido un aumento descontrolado y totalmente desproporcionado, un incremento de precios sin precedentes, que está teniendo un gran impacto económico en todo el mundo, que excede claramente de un normal y habitual desarrollo del mercado y que, por tanto, las partes de ninguna manera podían haber previsto a la hora de celebrar y formalizar el contrato, ni siquiera*



*empleando una diligencia extraordinaria. Ello se ha visto reflejado, entre otros aspectos, en el exponencial incremento de los costes de consumo energético que se ha producido, y que está afectando muy gravemente a la gestión del centro que está llevando a cabo esta parte. Todo ello le ha obligado a BPXPORT a ejecutar el contrato en términos y condiciones materialmente diferentes y económicamente más perjudiciales a los inicialmente establecidos, de manera que la prestación pactada en su día resulta muchísimo más onerosa para esta parte de lo que se había podido prever.*

*TERCERO.- Que, por tanto, teniendo en cuenta la situación descrita, BPXPORT interesa la aprobación de las tarifas que se señalan en la tabla que se acompaña como documento nº 2 para el año 2023.*

*CUARTO.- Que se trata de una adaptación de las tarifas vigentes a la realidad actual, que supone aumento de las mismas en un 7,3%, precisamente de acuerdo con la tasa de variación anual del IPC correspondiente al pasado mes de octubre de 2022 a nivel nacional, y que resulta necesaria para que BPXPORT pueda tener una mínima liquidez para la gestión de las instalaciones deportivas objeto del contrato, manteniendo el equilibrio económico y la viabilidad del mismo. Por lo expuesto,*

*AL AYUNTAMIENTO SOLICITO que, teniendo por presentado este escrito, junto con los documentos que lo acompañan, se sirva admitirlo y, teniendo por efectuadas las manifestaciones en él contenidas, al amparo de la situación de mercado del momento actual, acuerde modificar las tarifas actualmente vigentes en las instalaciones deportivas municipales, aprobando las propuestas por esta parte para el año 2023, en base a la tasa de variación anual del IPC a nivel nacional del mes de octubre de 2022, que se sitúa en un 7,3%, a fin de que la misma pueda tener una mínima liquidez para la gestión de las instalaciones objeto del contrato, manteniendo el equilibrio económico y la viabilidad del mismo.*

### **III.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Zerbitzu-emakida honetan, lege hau da aplikagarria: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen (SPKL hemendik aurrera).

SPKLren II. Liburuko II. Tituloko III. Kapituluaren (284. artikulutik aurrera), zerbitzuen emakida-kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, ondorioak, betetzea, azkentzea, betebeharrak, prestazio ekonomikoak, aldaketak, lehengoraztea eta suntsiaraztea.

Halaber, aurrekoaz gain, lizitazioa arautzen zuten administrazio baldintza partikularren plegua, preskripzio tekniko partikularren plegua eta memoria ekonomikoa dira kontratu honen legea.





## **1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legea**

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hasieratik argi uzten ditu hainbat printzipio eta horietako bat, eragiketa-arriskuarena da; izan ere, legearen hitzaurrean horri buruz hau zehazten da:

*En lo que respecta a los contratos de concesión de obras y de concesión de servicios, merece destacarse que en ambas figuras necesariamente **debe haber una transferencia del riesgo operacional de la Administración al concesionario**, delimitándose en el artículo 14 de la Ley, en línea con lo establecido en la nueva Directiva de adjudicación de contratos de concesión, los casos en que se considerará que el concesionario asume dicho riesgo operacional.*

...

*Para esta Directiva el criterio delimitador del contrato de concesión de servicios respecto del contrato de servicios es, como se ha dicho antes, quién asume el riesgo operacional. **En el caso de que lo asuma el contratista, el contrato será de concesión de servicios.** Por el contrario, cuando el riesgo operacional lo asuma la Administración, estaremos ante un contrato de servicios.*

Beraz, argi dago **zerbitzu-emakida bat dela hau** eta horrela tipifikatuta dago lizitazioa arautzen zuten administrazio baldintza partikularren pleguetan.

SPKLk 15. artikuluan hau zehazten du zerbitzuen emakida-kontratuei buruz:

### Artículo 15. Contrato de concesión de servicios.

*1. El contrato de concesión de servicios es aquel en cuya virtud uno o varios poderes adjudicadores encomiendan a título oneroso a una o varias personas, naturales o jurídicas, la gestión de un servicio cuya prestación sea de su titularidad o competencia, y cuya contrapartida venga constituida bien por el derecho a explotar los servicios objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio.*

*2. El derecho de explotación de los servicios implicará la **transferencia al concesionario del riesgo operacional**, en los términos señalados en el apartado cuarto del artículo anterior.*

Horrela, 14. artikuluko 4. idatz-zatiak hau zehazten du:

### Artículo 14. Contrato de concesión de obras.

*4. El derecho de explotación de las obras, a que se refiere el apartado primero de este artículo, deberá implicar la **transferencia al concesionario de un riesgo operacional** en la explotación de dichas obras abarcando el riesgo de demanda o el de suministro, o ambos. Se entiende por riesgo de demanda el que se debe a la demanda real de las obras o servicios objeto del contrato y riesgo de suministro el relativo al suministro de las obras o servicios objeto del contrato, en particular el riesgo de que la prestación de los servicios no se ajuste a la demanda.*

Halaber, SPKLren 290. artikulua hau zehazten du oreka-ekonomikoaren orekari buruz:

### Artículo 290. Modificación del contrato y mantenimiento de su equilibrio económico.



1. La Administración podrá modificar las características del servicio contratado y las tarifas que han de ser abonadas por los usuarios, únicamente por razones de interés público y si concurren las circunstancias previstas en la Subsección 4.ª de la Sección 3.ª del Capítulo I del Título I del Libro Segundo de la presente Ley.

...

4. Se deberá restablecer el equilibrio económico del contrato, en beneficio de la parte que corresponda, en los siguientes supuestos:

a) Cuando la Administración realice una modificación de las señaladas en el apartado 1 del presente artículo concurriendo las circunstancias allí establecidas.

b) Cuando actuaciones de la Administración Pública concedente, por su carácter obligatorio para el concesionario determinaran de forma directa la ruptura sustancial de la economía del contrato.

Fuera de los casos previstos en las letras anteriores, únicamente procederá el restablecimiento del equilibrio económico del contrato cuando causas de fuerza mayor determinaran de forma directa la ruptura sustancial de la economía del contrato. A estos efectos, se entenderá por causas de fuerza mayor las enumeradas en el artículo 239 de la presente Ley.

**En todo caso, no existirá derecho al restablecimiento del equilibrio económico financiero por incumplimiento de las previsiones de la demanda recogidas en el estudio de la Administración o en el estudio que haya podido realizar el concesionario.**

5. En los supuestos previstos en el apartado anterior, el restablecimiento del equilibrio económico del contrato se realizará mediante la adopción de las medidas que en cada caso procedan. Estas medidas podrán consistir en la modificación de las tarifas a abonar por los usuarios, la modificación de la retribución a abonar por la Administración concedente, la reducción del plazo de la concesión y, en general, en cualquier modificación de las cláusulas de contenido económico incluidas en el contrato. Asimismo, en los casos previstos en la letra b) y en el último párrafo del apartado anterior, podrá ampliarse el plazo del contrato por un período que no exceda de un 15 por ciento de su duración inicial, respetando los límites máximos de duración previstos legalmente.

...

Beraz, argi dago Udalak ez duela egin emakidadunarentzat derrigorrezkoa den jarduerarik, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura zuzenean eragin duenik. Gainera, 239. artikulua hau xedatzen du ezinbesteko egoerei buruz:

Artículo 239. Fuerza mayor.

1. En casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista, este tendrá derecho a una indemnización por los daños y perjuicios, que se le hubieren producido en la ejecución del contrato.

2. Tendrán la consideración de casos de fuerza mayor los siguientes:

a) Los incendios causados por la electricidad atmosférica.

b) Los fenómenos naturales de efectos catastróficos, como maremotos, terremotos,



*erupciones volcánicas, movimientos del terreno, temporales marítimos, inundaciones u otros semejantes.*

*c) Los destrozos ocasionados violentamente en tiempo de guerra, robos tumultuosos o alteraciones graves del orden público.*

Beraz, ez dira hemen ematen legeak aurreikusten dituen ezinbesteko arrazoiak. Bukatzeko, aipatu behar da SPK Lk 197. artikuluan arriskua eta menturari buruz xedatutakoa:

*Artículo 197. Principio de riesgo y ventura.*

*La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, sin perjuicio de lo establecido para el contrato de obras en el artículo 239.*

Aurreko guztia kontuan hartuz, hauek ondorioztatu daitezke:

- Kontratu hau zerbitzu-emakida bat da.
- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaren arabera gauzatuko da.
- Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin dakar emakidadunari eragiketa-arriskua transferitzea.
- Emakidadunak eragiketa-arriskua bere gain hartzen duela ulertuko da, baldin eta ez badago bermatuta, funtzionamenduko baldintza normaletan, arrisku horrek egindako inbertsioak berreskuratuko dituela, ez eta emakidaren xede diren obrak ustiatzearen ondorioz sortutako kostuak estaliko dituela ere.
- Udalak ez due egin emakidadunarentzat derrigorrezkoa den jarduerarik, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura zuzenean eragin duenik.
- Nolanahi ere, ez da oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko eskubiderik izango, Administrazioaren azterlanean edo emakidadunak egin ahal izan duen azterlanean eskariari buruz jasotako aurreikuspenak ez betetzeagatik.
- Ez dira hemen ematen legeak aurreikusten dituen ezinbesteko arrazoiak.

## **2.- Administrazio baldintza partikularren plegua**

Administrazio baldintza partikularren pleguko klausulatuaren azken paragrafoak hau zehazten du:

*Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan xedatutakoaren artean desadostasunik egonez gero, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan xedatutakoa nagusituko da.*

Aurrekoaren ondorioz, beraz, administrazio baldintza partikularren pleguan xedatutakoa nagusituko da, eta plegu horretako I. Eranskineko 7. idatz-zatian hau xedatzen da:

**Retribución de la concesionaria:** *De conformidad con lo dispuesto en el artículo 289 LCSP, el concesionario percibirá directamente de los usuarios, para hacer efectivo su derecho a la explotación del servicio, el ingreso de las tarifas correspondientes por la utilización de éstos. Estas tarifas tendrán la naturaleza de precio privado y de acuerdo*



*con lo dispuesto en el artículo 267 LCSP y en el punto 6 del Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares, a partir del segundo año de concesión, es decir 2023, la empresa adjudicataria en el último trimestre del año en curso hará una propuesta de precios para el año siguiente que habrá de ser aprobada por el Ayuntamiento.*

Beraz, aurrekoaren arabera, argi geratzen da 2023. urteko urritik aurrera enpresa esleipendunak 2024. urterako prezioen proposamena egingo ahal duela (eta horrela aurrerantzean), eta Udalak onartu beharko dituela tarifa horiek. Beraz, **2023ko urrira arte ezin izango da tarifak aldatzeko proposamenik onartu.**

### **3.- Ondorioak**

- Kontratu hau zerbitzu-emakida bat da.
- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaren arabera gauzatuko da.
- Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin dakar emakidadunari eragiketa-arriskua transferitzea.
- Emakidadunak eragiketa-arriskua bere gain hartzen duela ulertuko da, baldin eta ez badago bermatuta, funtzionamenduko baldintza normaletan, arrisku horrek egindako inbertsioak berreskuratuko dituela, ez eta emakidaren xede diren obrak ustiatzearen ondorioz sortutako kostuak estaliko dituela ere.
- Udalak ez due egin emakidadunarentzat derrigorrezkoa den jarduerarik, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura zuzenean eragin duenik.
- Nolanahi ere, ez da oreka ekonomiko-finantzarioa berrezartzeko eskubiderik izango, Administrazioaren azterlanean edo emakidadunak egin ahal izan duen azterlanean eskariari buruz jasotako aurreikuspenak ez betetzeagatik.
- Ez dira hemen ematen legeak aurreikusten dituen ezinbesteko arrazoiak.
- 2023. urteko urritik aurrera enpresa esleipendunak 2024. urterako prezioen proposamena egingo ahal du (eta horrela aurrerantzean), eta Udalak onartu beharko dituela tarifa horiek. Beraz, 2023ko urrira arte ezin izango da tarifak aldatzeko proposamenik onartu.

### **IV.- ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA**

Honi buruz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82.4 artikuluan hau zehazten du:

*4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.*

Beraz, argi dago ez dela entzunaldi-izapiderik egin, prozeduran ez baitira agertzen eta ebazpenean ez baitira kontuan hartu interesdunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak baino.



Jurisprudentzia zabala dago entzunaldi-izapidea ez egiteari buruz (besteak beste, 2004ko martxoaren 3ko epaia, RC 4353/2001; 2011ko martxoaren 23ko epaia, RC 4264/2009; edo 2005eko martxoaren 16ko epaia, RC 2796/2001). Auzitegi Gorenaren ustez, entzunaldiaren izapidea ez betetzeak ez dakar, berez, interesdunaren defentsa-gabezia prozedura jakin batzuetan, eta, beraz, ez luke *per se* ekarriko erabakitako egintzaren erabateko deuseztasuna.

Jurisprudentziak bereizi egiten ditu zehapen-prozedurak eta prozedura ez-zehatzaileak. Konstituzioak 105. artikuluan jasotzen du legeak arautuko duela administrazio-egintzak gauzatzeko prozedura, eta, bidezkoa denean, interesdunari entzutea bermatuko du.

Bada, Auzitegi Gorenak zehapen-prozeduretarako ebatzi du entzunaldi-izapiderik ez izateak oinarritzko eskubidea urratzen duela, eta, beraz, erabateko deuseztasuna dakarrela. Hala ere, ez du izaera bera zehatzaileak ez diren prozeduretan; izan ere, Auzitegi Gorenaren ustez, kasu horietan entzunaldi-izapidea ez betetzeak egintza deuseztatzea ekar dezake, baina interesdunaren defentsa-gabezia gertatzen denean soilik; beraz, administrazioarekiko auzian defentsa-gabezia hori frogatu beharko du.

Kasu honetan, ez da entzunaldi-izapiderik egin behar, prozeduran ez baitira agertzen eta ebazpenean ez baitira kontuan hartu interesdunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak baino.

## **V.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*



Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arruntan ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urte baina gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasabán, Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

### **IRIZPENA**

**Lehena.-** Ez onartzea BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan indarrean dauden tarifak aldatzeko egindako proposamena; izan ere kontratua kontratistaren arrisku eta menturaren arabera gauzatuko da eta zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin dakar emakidadunari eragiketa-arriskua transferitzea.

**Bigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari Kirolak Sailari, Ogasun eta Administrazio-Finantza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu



Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, ez du onartu Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan indarrean dauden tarifak aldatzeko BPXPORT enpresak egindako eskaera.

#### **4. ONARTZEA 2023. URTEAN UDAL LANGILEEN ETA DEDIKAZIOZ ARITZEN DIREN KORPORAZIO KIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.**

##### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

### **AURREKARIAK**

2022ko abenduaren 24an Estatuko Aldizkari Ofizialean 31/2.022 Legea argitaratu zen; bertan, 2023 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren eta txosten honi dagokionean, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak eta dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsariak arautzen dira.

### **ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

**Lehen.**- Aipaturiko Legea aplikagarria da udaletxe guztiei, izan ere ordainsariei dagokionean oinarritzko araudi gisa kontsideratua bait dago eta gainera, legeak "sektore publiko" gisa honako entitateak barnebiltzen ditu bere 19.Bat artikuluan:

*"Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:*

*a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.*

*b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.*

*c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes.***

*d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.*

*e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.*

*f) Las sociedades mercantiles públicas, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea superior al 50 por ciento. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la*



*Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

*g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.*

*h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.*

*i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.*

*j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB).”*

Hortaz, lege hau aplikagarri izango da Tolosako udaleko langilegoari.

**Bigarrena.-** 2023 urtean sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako iagoera izateko aukera izango dute, aipatutako 19.BI artikulua bainan:

*Dos. 1. En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **2,5 por ciento** respecto a las **vigentes a 31 de diciembre de 2022**, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*

*2. Asimismo se aplicarán, en su caso, los siguientes incrementos respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos, en ambos casos, de 1 de enero de 2023:*

*a) **Incremento vinculado a la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado (IPCA). Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0,5 por ciento.***

*A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.*

*b) **Incremento vinculado a la evolución del Producto Interior Bruto (PIB) nominal en el año 2023. Si el incremento del PIB nominal igualase o superase el estimado por el Gobierno en el cuadro macroeconómico que acompaña a la elaboración de la presente ley de Presupuestos, se aplicará un aumento retributivo complementario del 0,5 por ciento.***





*A estos efectos, una vez publicados por el INE los datos de avance del PIB de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.*

*3. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2022. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.*

*Tres. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en el apartado anterior.*

*Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.*

*Se exceptúan, en todo caso:*

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.*
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.*
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.*
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.*

Artikulu honetatik honako hiru ondorio hauek atera daitezke:

- Lehena, 2023 urtean sektore publikoko langileek % 2,5eko ordainsarien igoera finkoa izango dutela 2023 urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2022ko abenduaren 31ean zuten ordainsariekiko.

- Bigarrena, Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPI) bilakaerarekin lotutako igoera; 2022ko KPIaren eta 2023ko iraileko KPI aurreratuaren batura ehuneko 6 baino handiagoa bada, gehenez ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria aplikatu ahal izango da, beti ere Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2023ko iraileko IPCAren datu aurreratuak argitaratu ondoren eta gehikuntza hori aplikatzea onartzen denean Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez.



- Hirugarrena, Barne Produktu Gordinak (BPG) 2023an izan duen bilakaerari lotutako gehikuntza; kasu honetan, BPG nominalaren hazkundeak Estatuko Aurrekontuen Legean onartutako koadro makroekonomikoan Gobernuak zenbatetsitakoa berdindu edo gaudituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da. Ondorio horietarako, INEk 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabakiaren bidez.

**Hirugarrena.-** Dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien erregulazioa ere aztertu behar da. Beraien ordainsariak ondoko arau hauetan oinarritzen dira:

-Batetik, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen 75 artikuluan eta Euskadiko Udal Instituzioen 32 eta 33 artikuluetan arautzen dira.

- Bestetik, 1/2015 Foru Dekretu/Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko kopuruak arautzen ditu. Bertan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrien karguentzat ezarritako ordainsariak ez dute 67.087 euro gordin urtean gaudituko behar.

Ildo honetatik, dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien kasuan, beste hiru xedapen kontuan hartu behar dira.

- Lehena, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Arauaren artikulua bakarraren laugarren atalean xedatzen du korporazio kideen ordainsariei ezarritako mugak eguneratuko direla erreferentzia gisa Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak eguneratzeko erabilitakoak. Aldi berean, artikulua bakar honen lehen atalak, besteen artean, 10.001etik 20.000 biztanle arteko urteko ordainsarien gehienezko mugak ezartzen ditu.

- Bigarrena, aipatzen diren eguneraketa hauek Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartu beharreko aurrekontuetan xedatzen dira. 2023 urterako hauxe arautzen dute:

a) 15/2022 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena, bere 19. artikuluan langileen ordainsariak arautzen ditu eta honakoa xedatzen du 19.13 puntuan: "Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenak eragotzi gabe, lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinduen 2023ko ekitaldirako ordainsariei ezin izango dute % 2,5etik gorako gehikuntzarik izan 2022ko abenduaren 31an indarrean dauden ordainsarien aldean, antzinasuna dela-eta egokitu dakiekeen gehikuntza eragotzi gabe."

b) 6/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2023. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituena, bere bosgarren xedapen gehigarrian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko mugak zehazten ditu eta honela xedatzen du:

*"1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren*



gehieneko mugak ondorengo taularen arabekoak izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hiru tektoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

<i>Biztanleak / Habitantes</i>	<i>Erreferentzia / Referencia</i>
<i>50.001etik aurrera A partir de 50.001</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 10 Consejero/a del Gobierno Vasco – 10%</i>
<i>20.001etik 50.000ra De 20.001 hasta 50.000</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 15 Consejero/a del Gobierno Vasco – 15%</i>
<i>10.001etik 20.000ra De 10.001 hasta 20.000</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako zuzendaria Director/a del Gobierno Vasco</i>
<i>5.001etik 10.000ra De 5.001 hasta 10.000</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 10 Director/a del Gobierno Vasco – 10%</i>
<i>1.000tik 5.000ra De 1.000 hasta 5.000</i>	<i>Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 25 Director/a del Gobierno Vasco – 25%</i>

- Hirugarrena, udalbatzak 2023 urterako aurrekontuekin batera onartutako exekuzio arauaren 34 artikuluan udalbatzako kideentzako ordainsariak beren kargua betetzen dutenean, dedikazio osoz edota partzialki, arautzen dute eta bertan bere 3 puntuan xedatzen du beren ordainsariak, udaleko langileentzako oro har onartzen den gehikuntza bera izango dutela.

**Laugarrena.-** Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen gutxienez kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena, bere 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren baitan, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa, udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko dira.

**Bosgarrena.-** Ordainsarien igoera honek jadanik udaleko aurrekontuan konsignazioa du.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria, Ander Figuerido Zubiria eta Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, ahobatez, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



**Lehenik.**- 2023 urterako Tolosako udaleko langileen (funtzionario, lan kontratudun zein personal ebentuala) ordainsarien %2,5eko igoera onartzea.

**Bigarrenik.**- Aurreko atalean ezarritako ehuneko berean dedikazioa duten korporazioko kideen ordainsariak handitzea, betiere muga gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legean eta Gipuzkoako Aurrekontuei buruzko Legean eta Foru Arauan ezarritako ehunekoak eta kopuruak gainditzen ez badituzte.

**Hirugarrenik.**- Igoera aplikatu ahal izateko aurrekontuan konsignatua dagoen 303.868,55 eurotako gastua onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu du 2023. urtean udal langileen eta dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsarien igoera.

## **5. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA ETA AKATSAREN ZUZENKETA.**

Udal idazkariak adierazi du Antolakuntza batzordeko irizpenean jasota dagoen 1. puntua, bozketatik kentzea, izan ere, “*Txistulari Bandako zuzendari eta irakasle*” lanpostuaren lanaldiaren inguruan jasota dagoena ez da erabakitzeke gai bat baizik horren berri emateko.

### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena zuzenduta**

## **AURREKARIAK**

Administrazio Publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa instrumentu bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxieneko



betebehar batzuen baitan. Aipaturiko instrumentu hori Lanpostuen Zerrenda da eta bertan, Tolosako udalak duen lanpostuen zerrenda eta lanpostu bakoitzak duen eduki eta ezaugarriak azaltzen dira.

## ALDAKETA PROPOSAMENAK

2022 urtean onartu den Lanpostu zerrendan hainbat aldaketa eta egokitzapen proposamenak egiten dira. Honela, bi aldaketa nagusi planteatzen dira:

**Lehena.**- "Txistulari Bandako zuzendari eta irakasle" lanpostuan lanaldiaren aldaketa bat proposatu da, hain zuzen ere momentu honetan % 68ko lanaldian dago eta % Txistulari Bandako zuzendari gisa beste % 32ko lanaldia igotzeko eskaera egin du, zuzendaritzarekin erlacionatutako lanak egin ahal izateko ( artxiboa, partituren antolaketa, bilerak etab..). Aldaketa honen proposamena Giza baliabidetako teknikariak aurka informatu du, irizpen honekin batera doan txostenarekin.

Aldaketa hau Batzordean tratatu ondoren, aurrekontu doikuntzarik ez duenez, diru izendapena duenean Udalbatzaren aurrean aurkeztuko dela erabaki da.

**Bigarrena.**- Udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean, Lanpostuaren balorazioaren behin-betiko onarpenarekin batera, lanpostu zerrenda ere onartu zen; bertan, gutxienez akats material bat somatu da, hain zuzen ere "ingurumen, jasangarritasun eta Landa eremuko teknikari" lanpostuaren funtzioen aldaketaren ondorioz, destino osagarriaren eta berariazko osagarriaren maila berriak ez dira ondo islatu eta hauek zuzentzen dira. Zentzu honetan, lanpostu honek destino osagarriaren 23 maila eta berariazko osagarriaren 975 puntu ditu.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehena.**- 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "*Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeke ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Saillapen profesionalean zein Taldetakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak



Lehen aipatutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

**Bigarrena.-** 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu publikoari buruzkoa, 45 eta 46 artikuluan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

*“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.*

*1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.*

*2.– Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo berezita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratadun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.*

*3.– Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.*

*4.– Une bakoitzean errazago ezagutu dadin zein den lanpostu-zerrenden egoera, bai eta zerrenda horien kudeaketa errazteko ere, enplegu publikoaren eskumena duten organoek aldi-aldi eguneratuko dute zerrendon gaineko informazioa. Halaber, administrazio bakoitzeko egoitza elektronikoan agertu beharko dira bateratuta, gardentasunez, eta etengabe eguneratuta.*

*5.– Ez da egongo lanpostu-zerrenda aldeztu aurretik zertan aldatu kasu hauetan: dagokien euskal administrazio publikoetan enplegu publikoaren eskumena duten sailek funtzionarioen lanpostuen adskripzioa aldatzean –giza baliabideen berresleipen, berradskripzio edo birbanaketarengatik–, baldin eta destino berria badago eragindako langileen arestiko zerbitzu-udalari berean –edo campus berean, Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan– eta lan-baldintzak aldatzen ez badira. Aldaketa, dena den, lanpostu-zerrendan sartu beharko da; sartu ere, lanpostu-zerrendaren hurrengo aldaketan, berradskripzioa gertatuz gerokoan.*

*6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatu dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotako tresnak. Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.*

*7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten bamean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantiletan aurreikusitako kredituekin.*

*8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostu-zerrendak Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, lege honen 17. artikuluan xedatutakoaz bat.*

*9.– Foru- eta toki-administrazioetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, haien arauen arabera horretarako eskumena duen organoak onartuko ditu lanpostu-zerrendak.*



*46. artikulua.– Lanpostu-zerrenden edukia.*

*1.– Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:*

- a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.*
- b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.*
- c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.*
- d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.*
- e) Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.*
- f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.*
- g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.*
- h) Dedikazio-araubidea.*
- i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.*

*2.– Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.*

*3.– Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeke prozesuen ondorioz, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren.*

*4.– Behin-behineko langileen lanpostu-zerrendek hauek jasoko dituzte, gutxienez: artikulua honen 1. apartatuko a), b), g) eta h) letretan aipatzen den informazioa, eta ordainsarien guztizko zenbatekoa”*

**Hirugarrena.-** 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

**Laugarrena.-** Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023 urterako Estatutako Aurrekontu Orokorra onartzen dituena, bere 19. 2 artikuluan adierazten du 2023 urterako ordainsariak ezingo dutela % 2,5eko igoera finkoa baino handiago eduki 2022ko abenduaren 31rekiko, bai pertsonal baliabideei bai antzintasunari dagokienez.



Dena den, xedapen honek udal plantillaren handitzea ez du baimentzen, salbu legeak ezarritako ez-ohiko kasuetan ( adibidez zerbitzu berriak ematen diren kasuetan) baina kasu honetan plantilla ez da handitzen baizik eta mantendu egiten da, lanpostuaren dedikazio portzentaia aldatuaz. Kasu honetan, gastuaren gehikuntza 16.401,54 eurotakoa izango da.

Hala ere, hasieran esplikatu den bezala, aldaketa hau Batzordean tratatu ondoren, aurrekontu doikuntzarik ez duenez, diru izendapena duenean Udalbatzaren aurrean aurkeztuko dela erabaki da.

### ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin negoziatu zen azken aldiz 2022ko abenduaren 13an.

### ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legarean 22.1 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen . Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Aurkako botoak: Ander Figuerido Zubiria eta Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, gehiengoz, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:





**LEHENA.**- Puntu hau bozketatik kentzea ados dute Udalbatzako kideek.

**BIGARRENA.**- Onartzea 2022 urteko lanpostuaren zerrendan honako aldaketa hau:  
"Ingurumen, jasangarritasun eta Landa eremuko teknikari" lanpostuaren ezaugarriak zuzentzea eta honako mailak finkatzea; destino osagarria 23 maila eta berariazko osagarria 975 puntu.

**HIRUGARRENA.**- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu du Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa eta akatsaren zuzenketa.

## **6. HASIERAZ ONARTZEA 2023KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENA 1-2023.**

### **Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

2023ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Aldaketa	Mota
0500.481.13.231.00	ABEGI	Bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko harreta	40.000	Izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Xarles Iturbe Pasabán, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.



Hori dela eta, Batzordeak

### DIKTAMINATU DU

**Lehena.**-Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinetako aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2023	Mota
0500.481.13.231.00	ABEGI	Bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko harreta	70.000	Izenduna

**Bigarrena.**- 2023ko dirulaguntzen eranskinetako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunetz, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, hasierako onarpena eman dio 2023ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 1-2023 proposamenari.

### **7. HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE PUBLIKOEK EMATEN DITUZTEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA.**

Antolakuntza batzordeak aurkeztutako irizpena aztertu eta bozkatu aurretik, EAJ-PNV, EH-BILDU ETA PSE/EE udal taldeek adostutako emendakina aztertu dute Udalbatzako kideek:



### **EMENDAKINA:**

*Plenoko erabakian hurrengo puntua txertatzea*

*Alkatetzari ahalmena ematen zaio dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile bakoitzaren beharrezko aldaketak egiteko, ordenantza horiek **Ordenantza Orokor** honetan sartutako aldatetara egokitzeko helburua baduten.*

*Ordenantza espezifikoen aldaketak Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko dira eta informazio publikoko izapidea bideak jarraitzea emango zaie.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu dute aurkeztu duten emendakina.

**Jarraian, Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena onartutako emendakinarekin.**

#### **I. AURREKARIAK**

Aurten, dirulaguntzen oinarri edo arau erregulatzailuetan, balorazio-irizpideetan eta onuradun izateko betekizunetan eragina duten ondorengo legeak argitaratu dira:

*Enpresa Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea*

*11. artikulua Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aldatzen du Onuradun izateko betekizunei dagokienez, 3. bis paragrafoa gehitzen zaio 13. artikuluari. Paragrafo horrek ezartzen du 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako ezingo direla onuradun edo erakunde laguntzaile izan merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ez dituzten enpresak.*

*Halaber, diruz lagun daitezkeen gastuei dagokienez, ezartzen du enpresa onuradunak bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastuak aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko direla, edo, halakorik ezean,*



*abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituenean, ezarritakoetan.*

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea, 21 bis artikulua*

*Dirulaguntza publikoetan genero-ikuspegia txertatu behar dela aipatzen du eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartu behar direla oinarri edo arau erregulatzaileretan, balorazio-irizpideen artean eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharren artean.*

*Dirulaguntza publikoen oinarri edo arauetan, besteak beste, honako hau bete beharko dela aipatzen du: «Balorazio-irizpideen baremo osoaren % 5ekin balioetsiko dituzte, gutxienez, parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako ekintzak eta politikak, eta/edo dirulaguntzara aurkezten den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin zerikusia duten beste alderdi batzuk. Hori gutzia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpokoa dela dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.»*

*2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea, azken xedapenetako hamahirugarrena*

*Xedapen honek paragrafo berri bat gehitzen du DLO-eko 8.1 artikuluan. Honela dio paragrafo berri honek: «Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza»*

Hiru lege horiek Tolosako Udalaren eta bere Entitate Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean edukiaren egokitzapen eta moldaketa beharra dakarte.

Aldaketa horiek egiteko ordenantza aldatu egin behar dela aprobetxatuz, egungo edukian moldaketa txiki batzuk ere egitea proposatzen da txosten honetan. Besteak beste, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/20023 Lege Orokorrerari jarraiki zeharkako kostuen muga kentzea eta justifikatzeko kontu erraztua erabiltzen den kasuetan lagin gastu-frogagirien lagina osatzen duten gastuak ere behar bezala justifikatu behar direla argitzea.

## II. EGITEA PROPOSATZEN DIREN ALDAKETAK:

- **4. artikulua. Araubide juridikoa**

Tolosako Udaleko dirulaguntzek aginduzko izango dituzten lege eta arau berriak txertatzea.

Aurreko testua:

Testu berria:

«1. Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen

«1. Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzak aginduzko izango dituzte, batetik, Ordenantza



dirulaguntzak aginduzko izango dituzte, batetik, Ordenantza honetan, DLOn eta bera garatzeko uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Araudian (aurrerantzean DLOren Araudia) jasotako preskripzioak; bestetik, eman litezkeen ordenantzak edo oinarri espezifikoak, dagozkion udal Aurrekontua Betearazteko Oinarriak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legea eta diru-laguntza horiei aplikatu beharreko gainerako arauak.»

honetan, DLOn eta bera garatzeko uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Araudian (aurrerantzean DLOren Araudia) jasotako preskripzioak; bestetik, eman litezkeen ordenantzak edo oinarri espezifikoak, aurrekontua gauzatzeko udal araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 legea, unean-unean Tolosako Udalak euskararen erabilerean normalizazioari begira indarrean duen plana, 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa eta diru-laguntza horiei aplikatu beharreko gainerako arauak. »

- **6.artikulua. Diru-laguntzen Plan Estrategikoak.**

Paragrafo berri bat gehitzea 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeako azken xedapenetako hamahirugarrenean sartutako aldatetetan oinarrituta.

Aurreko testua:

1. Tolosako udalak eta bere erakunde autonomoek, diru-laguntzak ezarri aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategikoan zehaztu beharko dute ze helburu eta ondorio iritsi nahi diren diru-laguntzak aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta beren finantzaketa-iturriak, baina, betiere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin.

Testu berria:

1.Tolosako udalak eta bere erakunde autonomoek, diru-laguntzak ezarri aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategikoan zehaztu beharko dute ze helburu eta ondorio iritsi nahi diren diru-laguntzak aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta beren finantzaketa-iturriak, baina, betiere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin.

«Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza»

- **10. artikulua. Pertsona edo entitate onuraduna izateko baldintzak eta baldintza horiek frogatzeko modua.**

10.artikuluko 10.atala berdintasuneko txosten teknikoan proposatzen den eran aldatzea: «Ondoren, 10.10 artikuluan. (Ezin izango dute parte hartu eta diru-laguntzen deialdi honetako lehiaketatik kanpo geratuko dira) atal hau artikulatzea proposatzen da, Idazkaritza Sailak eremu horretan Berdintasunerako Legea aplikatzeko proposamenean jasotako baldintzetan.»



Aurreko testua:

«10. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

*Pertsona fisikoa edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.*

*Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.*

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.*

*Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.*

*Debekua ezartzen da bat etorrita xedapen hauekin: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.»*

Bestalde, berdintasuneko txosten teknikoan oinarrituta, artikulua berean 18.atala gehitzea proposatzen da dirulaguntza eskatzaileek berdintasun alorrean bete beharko lituzkeen betekizunen inguruan.

Testu berria:

«10. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

*1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.*

*2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoia direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.*

*3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.*

*4.- Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio multipleko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketan beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiet buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.*

*Debekua ezartzen da bat etorrita xedapen hauekin: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua. »*



«18. Parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek bete beharko dituzten betekizunen artean, dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta emakumeen eta gizonen berdintasuna alderdi helburua bada, oinarri arautzaileetan baldintza hauetako bat edo batzuk sartu behar dira:

1.- Erakundearen ibilbide eta esperientzia espezifikoak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan, azken hiru urteetan egindako jarduketa eta lan garrantzitsuenak adierazten direla (eskatzen den gutxieneko lan eta fakturazio kopurua zehaztu beharko da).

2.- Langileen generoari buruzko heziketan duten titulazioa, prestakuntza eta curriculum (pertsona kopurua, esperientzia-urteak eta eskatutako gutxieneko lanak eta berdintasun-erloto prestakuntza orduak zehaztu beharko dira).

3.- Berdintasunaren arloko enpresa-ziurtagiri edo -bereizgarri bat edukitzea, edo, bestela, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzak-erakundea dela adierazten duena, edo antzeko beste ziurtagiri ofizialen bat.

4.- Erakunde edo enpresaren juntan, zuzendaritza-organoan, administrazio-kontseiluan edo plantillan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea.

5.- Erakundearen eraketa-eskrituran edo estatutuetan jasotako helburuetako bat izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea.»

• **11. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.**

Enpresa Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeko 11.artikuluari jasotzen denari jarraiki, honako bi betebeharrak berri hauek gehitzea:

«j) Egiaztatzea, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzatarako eta onuraduna edo erakunde laguntzailea enpresa bat denean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen dituztela.

k) Egiaztatzea enpresa onuradunak diruz lagun daitezkeen gastuak aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan, edo, halakorik ezean, abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituenean, ezarritakoetan ordaindu dituela. »

Euskara saileko txosten teknikoan oinarrituta, betebeharrak berri hauek ere txertatzea:

«l) Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdintasun jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebeharrak hori bete izana diruz lagundutako jardueran egin dela justifikatzerakoan egiaztatzea beharko da.

m) Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraiki, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jardueran gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa. »



• **18. artikulua. Prozeduraren hasiera**

Artikulu honetako 5.atalean, dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko erabili daitezkeen irizpideak zeintzuk izan daitezkeen zerrendatzen dira.

Horien artean badago bat genero-ikuspegiaren ingurukoa eta bertan paragrafo bat txertatzea proposatzen da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeko 21 bis artikuluan balorazio-irizpideen inguruan aipatzen dena jasotzeko.

Aurreko testua:

«e) *Proiektuan genero-ikuspegia kontuan hartzea.*»

Testu berria:

«e) *Proiektuan genero-ikuspegia kontuan hartzea.*

*Balorazio-irizpideen baremo osoaren % 5ekin balioetsiko da, gutxienez, parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako ekintzak eta politikak, eta/edo dirulaguntzara aurkeztzen den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin zerikusia duten beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.*

*Halaber, balorazio irizpideei dagokienez, dirulaguntzaren xedearen arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bada, oinarri arautzaileetan honako baldintza hauetako bat edo batzuk sartzea proposatzen da: pertsonekin lotutako balorazio-irizpideen artean, puntuazio gehigarri bat ematea proposatzen da, dirulaguntzaren hartzailea emakumea (edo guraso bakarreko familia) bada, edo emakumeen edo indarkeria matxistaren biktima izan den emakumea bada.»*

• **19. artikulua. Prozeduraren instrukzioa**

Berdintasun saileko txosten teknikoan oinarrituta 19.artikuluko 4.atalean esaldi berri bat gehitzea proposatzen da batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatu behar dela adierazteko.

Aurreko testua:

«4. *Behin eskabideak ebaluatuz eta haien gaineko txostena eginez gero, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak diru-laguntzak emateko proposamena egin eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan.* »

Testu berria:

«4. *Behin eskabideak ebaluatuz eta haien gaineko txostena eginez gero, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak diru-laguntzak emateko proposamena egin eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.»*





- **27.artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

Zeharkako gastuei buruzko atala Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 31.artikuluko 9.atalean jasoa dagoen moduan uztea proposatzen da.

Aurreko testua:

*«7. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira, halaber, lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, deialdian, hitzarmenean edo laguntza emateko ebazpenean zehaztutako gehieneko portzentajearen, bidezkoak diren azterketa ekonomikoak egin ondoren. Portzentaje hori ezin izango da, inola ere, emandako diru-laguntzaren ehuneko 8 baino gehiago.*

*Zeharkako kostuek ez dute justifikazio gehigarriren beharrik izango.»*

Testu berria:

*«7. Diruz laguntzeko modukoak izango dira, hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta, nolana ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.»*

- **30.artikulua. Justifikatzeko kontu erraztua**

Artikulu honetan 5.atala gehitzea proposatzen da dirulaguntza justifikatzeko kontu erraztua erabiltzen den kasuetan gastu-frogagiriaren lagina ere faktura eta ordainagiri bidez justifikatu behar direla argitzeko helburuarekin.

*«5. Gastu-frogagiriaren lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek, aurreko b) letran aipatzen den zerrendan sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.*

*Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkeraren arabera.»*

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Xarles Iturbe Pasabán, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hori dela eta, Batzordeak

## DIKTAMINATU DU

**LEHENA.-** Tolosako udalak eta bere Erakunde Publikoak Diru-laguntzen Ordenantza arautzailea hasierako izaeraz aldatzeko proposamena onartzea aipatutako aldaketak eginez.

**BIGARRENA.-** Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean



argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.**-Alkatetzari ahalmena ematen zaio dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile bakoitzaren beharrezko aldaketak egiteko, ordenantza horiek **Ordenantza Orokor** honetan sartutako aldaketetara egokitzeko helburua baduten.

Ordenantza espezifikoen aldaketak Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko dira eta informazio publikoko izapidea bideak emango zaie jarraitzea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**BOSGARRENA.**-Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu du hasiera ematea Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorren aldaketari.

**8. ONARTZEA TOLOSAKO HAIKOKO «23. USABAL INDUSTRIALDEA 2» ESPARRUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA, ETA HORRI DAGOKION HERRITARREK PARTEHARTZEKO PROGRAMA.**

**Lurralde Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

**I.- AURREKARIAK:**

Tolosako Udalbatzak 2009ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartu zen behin betiko Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren testu bategina, 2009ko urtarrilekoa.



Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak «23. USABAL INDUSTRIALDEA 2» hirigintza esparruko arau partikularrean hau jasotzen du, besteak beste:

## «II. ANTOLAMENDU IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

(...)

—Erretiro baserriak okupatzen duen ingurunean, SAM paper-fabrikaren inguruan, **beste industria-garapen bat aurreikustea, udalerriak ekonomia-jardueren garapenen alorrean dituen premiei erantzutearren.**

(...)

## VII. GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

### 1. Urbanizazio-erregimena.

«23.1 Usabal. Industria-garapen berria» (azpi)esparru osorako urbanizazio-proiektua landuko da. Nolanahi ere, Urbanizatzeko Jardun Programa lantzeko eta bideratzeko testuinguruan definituko dira jardun horren behin betiko baldintzak.

2. **Hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikuntzak. Antolamenduz kanpo deklaritzen dira «23.1 Usabal. Industria-garapen berria» (azpi)esparruan gaur egun dauden eta (azpi)esparru horretan planteatutako hirigintza-antolamendu berriarekin bat ez datozen eraikin eta erabilera guztiak.**

### 3. Gauzatze erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.

#### 3.1. Jarduteko baldintzak.

A. «23.1 Usabal. Industria-garapen berria» eta «14.4 Elkano Kalea» (azpi)esparruek eta «19.1.1. San Blas etxeen zatia» deritzan espazioaren lursailek osatzen duten multzoak jardun integratuko esparru bakarra osatzen du. Era berean, (azpi)esparru eta lursail horiek gauzatze-unitate berari atxikiko zaizkio.

(...)

#### 3.2. Urbanizatzeko Jardun Programak formulatzeko eta programatzeko berariazko baldintzak

A. Aurreko idatz zatian aipatzen den «3.1.A» jardun integratuko esparrua dagokion Urbanizatzeko Jardun Programaren mende izango da.

B. Plan Orokorrak hau onartu eta **bi urteko epearen barruan landu eta bideratu beharko da Programa hori.**»

2014ko ekainaren 2an sinatu zen Santiago Peñalba Garmendia, Manu Arruabarrena Florez eta Mikel Iriondo Iturrioz jaunekin Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren berrikuspen partziala egiteko kontratua. Bertan, besteak beste, «23. USABAL INDUSTRIALDEA 2» esparrua berrikustea aurreikusten zen beste eremu batzuekin batera. Ondorioz, 2014ko urrian Aurrerapen Dokumentua idatzi zen eta bertan, «23. Usabal Industrialdea 2» esparrurako 3 aukera proposatu ziren. Irizpide orokorra Azpiesparruan gaur egun aurreikusitako industria garapenak mantendu, murriztu edo ezabatzea aztertzea zen. Hiru aukeretan, laburbilduz, hau jaso zen:



1. aukera: Gaur egun aurreikusitako industria garapena ezabatzea zekarren, bere osotasunean. Lurrak ez urbanizagarri gisa sailkatzen ziren.

2. aukera: Gaur egun eremuan aurreikusitako industria garapenen murrizketa zekarren, SAM enpresa inguruan dauden lursailletara egokituz.

3. aukera: 2009ko Plan Orokorren proposamenekin bat zetorren.

Ondoren, antolamenduaren irizpide eta helburuak definitzeko fasea ere hasi zen eta bertan «23.1 Usabal. Industria-garapen berria» azpiesparruari dagokionez hau proposatzen zen: «*Sailkatzea lurzoru urbanizaezin gisara, orain hiri lurzoru modura sailkatutako lursaila, eta “23. Usabal Industrialdea 2” eremutik kanpo uztea, honen mugak egokituz.*»

Baina prozedura ez zen amaierara iritsi, eta 2018ko irailaren 24an, dokumentuaren idazle talde teknikoak idatzi bat aurkeztu zuen udal erregistroan, hau eskatzeko: «*La resolución del trabajo de Revisión Parcial del Plan General de Tolosa (...)*». Eta kontratua etetea erabaki zen, adostasunez.

Beraz, 2009ko martxoan Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik, Udala ez da «23. Usabal Industrialdea 2» azpiesparruko antolamendu xehatua onartzera iritsi. Bitartean, berriz, eremu horretako zenbait eraikin antolamenduz kanpo deklaraturata daude, eta horrek zenbait muga ezartzen dizkie jabeei.

Bestalde, Usabal auzoko bizilagunek hainbatetan eskatu dute eremua 2009ko HAPO onartu aurreko egoerara bueltatzeko. Hori eskatzeko aurkeztu zuten idatzi bat, esaterako, 2022ko maiatzaren 23an.

Hala, Udal Gobernuak Plangintza Orokorra aldatzeko prozedura abian jartzeko eskaera egin du helburu berarekin. Ondorioz, egindako eskaerari eta HAPO aldatzeko espediente bat izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko txostena idatzi zen 2022ko abenduaren 30ean.

2023ko urtarrilaren 11n Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkura egin zen.

## **II.- AZTERKETA TEKNIKO:**

### **II.1.- HAPO ALDATZEKO ESPEDIENTEA SUSTATZEKO JUSTIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ:**

Udal plangintzaren aldaketa zehatz bat sustatzeak interes publikoa aitortu beharra dakar, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 4. artikuluan ezartzen den bezala.



Aurrekarietan azaldu den moduan, 2009ko martxoan Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik, hainbat saiakera egin badira ere, Udala ez da «23.1. Usabal Industria-garapen berria» azpiesparruko antolamendu xehakatu onartzera iritsi.

Bestalde, 2009ko Plan Orokorraren proposamenak hauek dira, laburbilduz, industria eta hirugarren sektoreko garapenen inguruan:

Alde batetik, Plan horrek lehendik dauden zenbait industria garapen kontsolidatzen ditu. Besteen artean, eremu hauetakoak: «4. Guadalupe-Donostia etorbidea»; «18. Apataerreka»; «21. Araxes paper fabrika»; «22. Usabal Industrigunea 1»; «23. Usabal Industrigunea 2»; «29. Aldaba-Berazubi Haundi»; eta abar. Horietako batzuetan egungo garapenen egokitzea edo handitzea proposatzen du.

Bestetik, zenbait industria garapen berri proposatzen ditu. Besteen artean, hauek:

- «18.1 (Tolosa) – Ibarako lurrak» azpiesparruan.  
Proposatutako industria garapenaren ezaugarrietako batzuk hauek dira:
  - Hirigintza eraikigarritasuna (irabazizkoa) sestraz gain: 63.050 m<sup>2</sup>(s).
  - Oin planoko gehieneko okupazioa sestraz gain: 48.500 m<sup>2</sup>.
- «23.1 Usabal. Industria garapen berria».  
Sestraz gaineko hirigintza eraikigarritasuna: 24.800 m<sup>2</sup>(s).

- «26. Olarrain» esparrua.  
Etxebizitzetara eta jarduera ekonomikoetara bideratutako eremua dugu hau. Zehazki, jarduera horietara lotutako sestraz gaineko hirigintza eraikigarritasuna 10.000 m<sup>2</sup>(s)-koa da.

Aurreikusitako garapen berriei dagokienez, «26. Olarrain» esparrua ez da oraindik garatu. «18.1 (Tolosa) – Ibarako lurrak», berriz, garatze fasean dago. Izan ere, Hiri Antolamenduko Plan Berezia eta Urbanizatzeko Jarduketako Programa behin betiko onartuta daude eta une honetan, Urbanizazio Proiektua izapidetze fasean dago. Beraz, herriak izan lezakeen lur industrialaren eskaerari erantzuteko adina industria lur oraindik badagoela esan liteke.

Bestalde, azken urteetan indarrean sartu diren araudiak ere kontuan hartu beharra dago: batetik, Hirigintzako Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretua; bestetik, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena; bai eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua ere. Eta lurralde antolamenduko tresna berriak ere sartu dira indarrean: EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak – LAG (2019) eta Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (2020), esaterako.



Ondorioz, eta azaldutako guztiagatik, baieztatu dezakegu behar bezala justifikatzen dela interes publikoa «23. Usabal Industrialdea 2» esparruan, Hiri Antolamenduko Plan orokorra aldatzeko espedientea sustatzeko.

## **II.2.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ALDATZEKO ESPEDIENTEA SUSTATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURAREN AZTERKETA**

### **II.3.1.- Egiturazko antolamenduaren aldaketa**

«23.1 Usabal. Industria-garapen berria» azpiesparrua lurzoru urbanizaezin gisara sailkatzeak HAPOko gaur egungo egiturazko antolamendua aldatzea eskatzen du. Besteak beste, azpiesparruaren muga, lurzoruaren sailkapena eta kalifikazio globala, aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna edota erabilera berezia eta erabilera bateragarriak bezalako egiturazko hirigintza-zehaztapenak birplanteatu eta aldatuko dira. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. artikulua aplikatuz, aipatutako parametroak egiturazko hirigintza-zehaztapenak dira, eta, beraz, plangintza orokorrean jaso behar dira. Ondorioz, Tolosako HAPO aldatu egin behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.

Plan Orokorra izapidetzea eta onartzea aipatutako legeko xedapenaren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, eta nabarmentzekoa da Plan Orokorra egitea Udalarri dagokiola, eta hura egiten hastea erabaki behar dela.

Artikulu horren 1. zenbakian honako hau ezartzen da:

*«1.- Udalarri dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.»*

### **II.3.2.- Parte hartzeko programa**

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua honako hau ezartzen du:

*«Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte*



har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- *Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.*
- *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.»*

Ildo beretik, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua 1. atalean ezartzen du Planaren berrikuspena formulatzeko erabakiarekin batera parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko dela. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.

Herritarrek parte hartzeko programa hori **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da labur-labur**, informazioaren teknologia berrien bidez zabalduko da eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu:

«

- a) *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.*
- b) *Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
- c) *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.»*

Hala, HAPOren aldaketa puntual hau aurrera eramateko, honako parte-hartze programa definitu da:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan Tolosako Udaleko ordezkariak hartuko dute parte: Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Saileko eta Komunitatea eta Gobernantza Saileko arduradun tekniko-politikoek.
- **Herritarrek parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira.** HAPOren Aldaketa Puntualaren Hasierako Onespeneko dokumentua idatzita dagoenean, proposamena herritarrei azaltzeko bilera ireki bat egingo da.
- **Landutako materiala eta hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira.** Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian, landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira.



### **II.2.3.- Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordea**

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2012ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onespina eman zion Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen Araudiari, indarrean zegoena bertan behera utzi ondoren. Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betiko onartutzat joko zela, jendaurrean jartzeko izapidean alegaziorik aurkeztu ezean. Jendaurreko izapide horretan ez zen alegaziorik aurkeztu, eta ondorioz araudia behin betiko onartua geratu zen.

Araudi horren 4. artikulua Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioak eta xedeak zehazten ditu. Horien artean, parte hartzeko programekin lotuta, hauei onarpena ematea dagokie 4.2.3. artikulua araberara:

«2.3. Herritarren parte hartzea sustatzea eta bermatzea, hirigintzarekin lotutako herri galdeketa proposatzea eta **hirigintzako plangintza agiriek atxikita duten Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartzea**, hala nola, beronen aurreikuspenak hobeto betetzen laguntzea.»

2023ko urtarrilaren 11n, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen bilera egin zen eta bertaratutakoek aho batez onartu zuten proposatutako parte hartze programa.

### **II.2.4.- Organo eskuduna**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua aplikatuz, Osoko Bilkura da plangintza orokorrari buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa.

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### **IRIZPENA**

**LEHENA.- Tolosako HAPOko «23. Usabal industrialdea 2» esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea.**





**BIGARRENA.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa onartzea.** Programak honako eduki hau izango du:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan Tolosako Udaleko ordezkariak hartuko dute parte: Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Saileko eta Komunitatea eta Gobernantza Saileko arduradun tekniko-politikoak.
- **Herritarrek parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira.** HAPOn Aldaketa Puntualaren Hasierako Onespeneko dokumentua idatzita dagoenean, proposamena azaltzeko bilera ireki bat egingo da.
- **Landutako materiala eta hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira.** Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian, landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira.

**HIRUGARRENA.- GAOn argitaratzea** Tolosako HAPOk «23. Usabal Industrialdea 2» Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

**LAUGARRENA.- Informazioa eskatzea** babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerraren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Tolosako HAPOk «23. Usabal industrialdea 2» esparrua aldatzeko espedienteari hasiera ematea, eta horri dagokion herritarrek partehartzeko programa.



## **9. HASIERAZ ONARTZEA ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA.**

**Lurralde Batzorde Informatiboaren 2023ko urtarrilaren 18ko irizpena**

### **1. AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Aurretzako kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko oholean	2022/10/25- 2022/11/16	
Aurretzako kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/10/25	
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/11/16	
Informazio publikoan jasotako eskaera	2022/11/11 2022/11/16	Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunena Ander Zubizarreta Garcia
Hirigintzako buruaren txostena informazio publikoari buruz	2022/11/23	
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2022/11/24	
Ordenantza proposamena	2022/11/24	
Kultura eta festetako arduradunaren txostena	2023/01/11	Aldekoa
Berdintasunari buruzko txostena	2023/01/12	Aldekoa, gomendioekin
Hizkuntzari buruzko txostena	2023/01/13	Aldekoa
Lege-txostena	2023/01/13	Aldekoa

### **2. AZTERKETA TEKNIKOAK**

- 2023ko urtarrilaren 11n, kultura eta festetako arduradunak txostena egin zuen:

**«TXOSTENA: ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZAZ**

#### **Aurrekariak**

- Tolosako udaleko hirigintza zerbitzua zarata eta bibrazioei buruzko ordenantza izapidetzen ari 2023ko udalbatzari onespenu eskatzeko, dagokion batzordean aurkeztu eta diktamena jaso ondoren
- Eskatutako txostenen artean kultur-zerbitzuarena dago, honen jardunak eta esparru honetako jardura pribatuak ere ordenantza honek arautu nahi dituen alderdi batzuekin harremana izan dezakeelako.
- Ordenantzaren irakurketari eta azterketari ekin zaio, zerbitzu honek ekarpenik egin dezakeen eta zuzenketarik proposa dezakeen ikusteko.



### Azalpena

- Ordenantzaren osotasunetik III titulutik 25-34garren artikuluen arteko edukiari buruzko azterketa egin da, batez ere, jardueren erregulazioarekin lotura dutenak, hain zuzen ere.
- Ordenantza egitasmoaren V garren tituluko 37 eta 41garren artikuluen azterketa egin da, 39garrenarena bereziki, bide publikoko jarduera erregulatzen dituenak, kontzertu, ikuskizun eta saio bereziak

### Proposamena

- Egitasmoak esparruari buruz proposatzen duena dagoen bezala onartzea, kultura eta festen ikuspegitik kontuan hartu beharreko alderdi guztiak bildu eta modu egokian erregulatu eta bideratzen direlako».

- 2023ko urtarrilaren 12an, Udaleko berdintasun teknikariak txostena egin zuen:

### **«BERDINTASUNARI BURUZKO TXOSTENA GAI HONI LOTURIK**

**GAIA:** Zaratari eta bizrazioei buruzko Udal ordenantza arautzaile berrien proposamena

2022ko abenduaren 29an Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak, korreo elektronikoren bidez, Zaratari eta bizrazioei buruzko Udal ordenantza arautzaile berrien proposamenaren txosten teknikoa egiteko adierazten du.

Sail horrek zaratak eta bizrazioak arautzeko ordenantza bat egiteko beharra planteatu du. Legean ezarritakoa betetzeko, kontsulta publiko bat egingo da ordenantza hori onartu aurretik. Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak eginez.

Ordenantza honen helburua kutsadura akustikoa prebenitzea, murriztea eta zaintzea da, eta kutsadura horrek osasunean eragin ditzakeen kalteak murriztea. Beraz, Tolosako bizilagunak hots-kutsaduratik babestu nahi ditu, zarata- eta bizrazio-fokuen mugak eta zehaztapen teknikoak ezarriz.

Era berean, udalerriko ingurumen-kalitate akustikoa hobetzeko mekanismoak ezarri eta eraikin berrien babes akustikorako beharrezko eskakizunak garatu nahi ditu. Hau da, ordenantza arautzaile berriarekin tolosarrek kutsadura akustikorik gabeko hiri-ingurumenaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.

Hori horrela, ordenantza honetan jasotako edukia aztertu ondoren, uste da ez dela derrigorrezkoa generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitea, ez diolako modu erabakigarrian eragiten emakumeen eta gizonen egoerari eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoiei. Hain zuzen ere, ordenantza honen helburua da Tolosako herritarrak kutsadura akustikotik babestea eta horretarako mugak jartzea.

Hala ere, kontsulta publikoa egiterakoan, Tolosako gizonei eta emakumei informazioa iritsiko zaiela eta kontsulta publikoan berdintasunez parte hartu ahal izango dutela bermatzeko beharrezkoak diren informazio- eta komunikazio-bitartekoak erabiltzea gomendatzen da.



*Hortaz, txosten honetan egindako proposamenak ordenantza hau egiteko ardura duten teknikariarekin kontrastatu eta bertan sartu ondoren ulertuko da ordenantza honek oso modu egokian betetzen duela Tolosako Udalak erabakita dituen berdintasun irizpideak.*

*Halaxe jakinarazten dut dagozkion ondorioetarako».*

- 2023ko urtarrilaren 13an, UEMako teknikariak txostena egin zuen:

**«TXOSTENA  
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK  
Gaia: ZARATA ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

**HIZKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA GAI HONI LOTURIK**

*2022ko abenduaren 29an Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak, korreo elektronikoren bidez, Zaratarari eta bibrazioei buruzko Udal ordenantza arautzaile berrien proposamenaren txosten teknikoa egiteko adierazten du.*

*Sail horrek zaratak eta bibrazioak arautzeko ordenantza bat egiteko beharra planteatu du. Legean ezarritakoa betetzeko, kontsulta publiko bat egingo da ordenantza hori onartu aurretik. Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute ekarpenak eginez. Ordenantza honen helburua da kutsadura akustikoa prebenitzea, murriztea eta zaintzea, eta kutsadura horrek osasunean eragin ditzakeen kalteak murriztea. Beraz, Tolosako bizilagunak hots-kutsaduratik babestu nahi ditu, zarata- eta bibrazio-fokuen mugak eta zehaztaperen teknikoak ezarri.*

*Era berean, udalerriko ingurumen-kalitate akustikoa hobetzeko mekanismoak ezarri eta eraikin berrien babes akustikorako beharrezko eskakizunak garatu nahi ditu. Hau da, ordenantza arautzaile berriarekin tolosarrek kutsadura akustikorik gabeko hiri-ingurumenaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.*

*Hori horrela, ordenantza honetan jasotako edukia aztertu ondoren, uste da ez dela derrigorrezkoa hizkuntzaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitea, ez diolako modu erabakigarrian eragiten herritarren hizkuntza eskubide eta interes legitimoak.*

*Hortaz, ulertuko da ordenantza honek oso modu egokian betetzen duela Tolosako Udalak erabakita dituen hizkuntza irizpideak.*

*Halaxe jakinarazten dut dagozkion ondorioetarako».*

**3. AZTERKETA JURIDIKOA**

1. 2023ko urtarrilaren 13an, Idazkaritzako AOTak txostena egin zuen:



## «GAIA: Zarata eta Bibrazioei buruzko udal ordenantza

### AURREKARIAK:

Hirigintza Departamentutik Zarata eta Bibrazioei buruzko udal ordenantzaren proposamena helarazi dute. Aldez aurretik, jendaurreko informazioaren aurretiazko izapidea bete da.

### 1.- Oinarri Juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- o udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- o udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- o udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berriazko eskumenak egikaritzea baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 a eta b apartaduak: "Udalerriak eskumen propio gisa baliatuko ditu beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan: a) Hirigintza: hirigintza-plangintza, -kudeaketa, -gauzatzea eta -diziplina. b) Hiri-ingurumena: bereziki, parke eta lorategi publikoak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta hiriguneetako kutsadura akustiko, argi eta atmosferikoaren aurkako babesa. f) Udaltzaingoa..."

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 8. atalean: "Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta."; 9. atalean ondorengo zehazten da: "hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.

Lege horren 33 atalean ere jasota daude: "Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea...."

Lege honen 19. artikulua honeal dio:

### 19. artikulua Udal-eskumenak berrmatzea eta gauzatzea.

"Eskumen propioak edukitzeak esan nahi du udalerriek dutela arloko legeriak edo foru-botere araugileak, lege honen 17. artikuluan aurreikusitakoarekin lotuta, mugarritutako esparru materialen inguruko eginkizunen eta ahalmenen titulartasuna.



*Udalerriek beren kasa gauzatu ahal izango dituzte eskumen propioak, edo indarreko legeriak aurreikusitako elkartzeko beste formula egoki batzuk erabilia, halako moldez non eskumen propioen ondoriozko obrak egitea eta zerbitzuen prestazioa edo kudeaketa erraztuko den, betiere eragindako udalerriek zehaztutakoaren arabera.*

*Era berean, lurralde historikoetako foru-arauek, edo Autonomia Erkidegoak, lege honetako VIII. tituluan xedatutakoaren arabera, udalarteko formula instituzionalak ezarri ahal izango dituzte, edo, halakorik ezean, udalaz gairik mugarteak. Eta efizientziako eta eskalako ekonomiako arazoak behartuta, kudeaketa-emaitzak hobetu egin behar direnean, formula horiek, elkartzeko formulekiko modu osagarri eta subsidiarioan, bermatu egingo dute udalerrien eskumenak antolatzea eta gauzatzea. Formula instituzional horiek ezartzeko, aplikagarria den oinarrizko legerian, lege honetan eta foru-arauetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.*

*Dena dela, toki-araubidearen oinarrizko legeriak eta foru-arauek ezarritakoarekin bat etorrira, foru-organo eskudunek laguntza teknikoa emango diete bakoitzak bere lurralde historikoko udalerriei, legeek edo, kasuan kasu, foru-arauek udalerriei esleitutako eskumenak benetan gauzatzen direla bermatzeko.”*

*Bestalde, Ordenantza ondorengo arautegian dago oinarrituta:*

*- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49,84 eta 84.bis1)a eta 84.bis 2.c).*

*-1986ko Tokiko Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren 41 eta 50 artikuluek.*

*- Udal Entidadeen Zerbitzuen Erregelamenduaren 1-17.artikuluak.*

*-Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 29.artikulua.*

*Beraz, Teknikari honen iritziz, Tolosako udalak badu ahalmena proposatzen den Ordenantza arautzailea onartu eta aplikatzeko, aipatu diren xedapenetan oinarritzen delako.*

*Aplikagarria den arautegi zehatzagoa, ondorengo da:*

- *10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.*
- *213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko Kutsadura Akustikoari buruzkoa.*
- *2028/1986 Errege Dekretua, ekainaren 6koa, automobilen ibilgailu-motak homologatzen dituzten zuzentarau komunitario jakin batzuk aplikatzeko arauak agintzen dituena.*
- *1439/1972 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, ibilgailu automobilen homologazioari buruzkoa, sortzen duten zaratari dagokionez.*
- *37/2003 Legea, azaroaren 17koa.*
- *1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, ingurumeneko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena.*
- *2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zaratari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatezko xedeei eta emisio akustikoei dagokienez.*



- *Uztailaren 6ko 1038/2012 Errege Dekretua, 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua aldatzen duena, zaratari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatezko xedeei eta emisio akustikoei dagokienez.*
- *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Komunaren Legea. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).*

*- Indarrean den udal-hirigintzako plangintza.*

## **2.- Ordenantzaren izapidetzea**

*7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:*

*Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.*

*Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitez.*

*Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.*

*Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantza behin betikotzat onartua emango da.*

## **3.- Organo eskuduna**

*Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzen hasierako onespena udalbatza plenoaren eskumena da.*

### **Beraz, PROPOSATZEN DA:**

**LEHENA.-** *Zarata eta Bibrazioei buruzko udal ordenantza hasieraz onartzea.*

**BIGARRENA.-** *Ordenantza hau eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.*

**HIRUGARRENA.-** *Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.*

**LAUGARRENA.-** *Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela».*

Aurrekoa ikusita, eta aintzat harturik txostenetan jasotako gomendioak, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da, eta Udalbatzak hasieraz onartu behar du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.



**Tolosako Udaleko Lurraldeak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Izarne Iglesias, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva Telleria, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** HASIERAZ ONARTZEA Zaratari eta Bibrazioei buruzko udal ordenantza.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio Zarata eta Bibrazioei buruzko udal ordenantzari.





**10.2022/2974 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TOLOSAKO BEOTIBAR  
PILOTALEKUKO KIOSKOA USTIATZEKO ETA OBRAK EGITEKO EMAKIDA-  
KONTRATUAREN AMAIERA.**

2022ko abenduaren 22ko 2022/2974 dekretuaren berri eman da:

2022ZZZZ105

**ALKATETZAREN DEKRETUA**

**OLATZ PEON ORMAZABAL andreak, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, emana 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 21.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2007ko abenduaren 4an formalizatu zen Tolosako Udalaren eta CHURRO Y CHOCOLATE, S.L. merkatal enpresaren artean Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoa ustiatzeko eta obrak egiteko emakida-kontratua.

**BIGARRENA.-** Erreferentziako kontratua arautzen duen administrazio-klausula zehatzen agiriko hirugarren klausulan xedatutakoarekin bat etorritik, emakidaren iraupena 15 urtekoa zen, kontratua esleitzen zenetik zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA.-** Hori horrela izanik, aipatutako kontratua 2007ko abenduaren 4an formalizatu zenez 15 urterako, emakida 2022ko abenduaren 3an amaitu zen.

**LAUGARRENA.-** Kontratuaren hamabigarren klausularen l) letran xedatutakoaren arabera, emakidadunak udalari entregatu behar zizkion instalazioak emakida amaitzean,

**DECRETO DE ALCALDÍA**

Emitido por **Dña. OLATZ PEON ORMAZABAL**, alcaldesa-presidenta del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**ANTECEDENTES**

**PRIMERO.-** El 4 de diciembre de 2007 se formalizó entre el Excmo. Ayuntamiento de Tolosa y la mercantil CHURRO Y CHOCOLATE, S.L. el contrato de concesión de obras y explotación del kiosco del frontón Beotibar de Tolosa.

**SEGUNDO.-** De conformidad con lo dispuesto en la cláusula tercera del pliego de cláusulas administrativas particulares que rige el contrato de referencia, el plazo de duración de la concesión era de 15 años desde la adjudicación del contrato.

**TERCERO.-** Siendo esto así, habiendo formalizado el referido contrato el 4 de diciembre de 2007 para un periodo de 15 años, la concesión finalizó el día 3 de diciembre de 2022.

**CUARTO.-** De conformidad con lo dispuesto en la letra l) de la cláusula decimosegunda del contrato, el concesionario debía entregar las instalaciones al Ayuntamiento al finalizar la concesión, en las debidas condiciones de



kontserbazio- eta higiene-baldintza egokietan.

**BOSGARRENA.-** 2022ko azaroaren 7an egindako jakinarazpen elektronikoaren bidez (2022JAKI0352), emakidadunari jakinarazi zitzaion 2022ko abenduaren 3a zela Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoa ustiatzeko azken eguna.

**SEIGARRENA.-** Udal Administrazio honek egiaztatu du gaur egun Tolosako Beotibar pilotalekuko kiosko hori ustiatzen jarraitzen dela emakida ustiatzeko gaitzen duen titulurik gabe, emakida iraungi egin delako.

**ZAZPIGARRENA.-** Kontratazio-organoari dagokio, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, bertan sor daitezkeen zalantzak argitzea, kontratua onura publikoko arazoengatik aldatzea, kontratua azkentzea eta kontratuaren ondorioak zehaztea. Kasu honetan kontratazio-organoa korporazioaren osoko bilkura da, baina kontuan hartuta korporazioaren osoko bilkurak ez duela aurreikusten 2023ko urtarrilaren 25a baino lehen bilerarik egitea, eta epeak beharrik gabe atzeratzea saihesteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua m) letran xedatutakoarekin bat etorritz, alkate-udalburuari dagokio, bere erantzukizunpean, beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea.

Aurreko guztia oinarri hartuta, zinegotzi delegatu honek

**EBATZIDU**

conservación e higiene.

**QUINTO.-** Mediante notificación electrónica (2022JAKI0352) practicada el 7 de noviembre de 2022, se notificó al concesionario que el día 3 de diciembre de 2022 era el último día en que podía darse la explotación del Kiosco del Frontón Beotibar de Tolosa.

**SEXTO.-** Ha quedado acreditado por esta administración municipal, que al día de la fecha y no existiendo ya título habilitante para explotar la concesión por haber vencido ésta, continúa explotándose dicho kiosco del frontón Beotibar de Tolosa.

**SÉPTIMO.-** Corresponde al órgano de contratación, entre otros, la adjudicación del contrato, la interpretación del mismo, la resolución de las dudas que puedan surgir en el mismo, la modificación del contrato por razones de utilidad pública, la extinción del mismo y la determinación de sus efectos. En este caso el órgano de contratación es el pleno de la corporación, pero ya que el pleno de la corporación no tiene previsto reunirse antes del 25 de enero de 2023 y para evitar una dilación innecesaria de los plazos, de conformidad con lo dispuesto en el apartado m) del artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, procede a la alcaldesa-presidenta adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, las medidas necesarias y adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.

En base a todo lo anterior, este concejal delegado

**RESUELVE**



**Lehena.-** Udaltzaingoiari agintzea Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoaren instalazioetara joan dadila, berehala itxi dezan, bertan arduradun lanak egiten ari denari horren berri emanaz.

**Bigarrena.-** CHURRO Y CHOCOLATE, S.L. merkataritza-sozietateari aipatutako udal-higiezinean dauden giltza-joko guztiak eskatzea, eta udaltzaingoa aurrean higiezina itxita geratzea.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiaren berri berehala ematea osoko bilkurari, hark egiten duen lehenengo bilkuran.

**Laugarrena.-** Zentzu honetan hartutako erabakia jakinaraztea, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, errekurtso hauek aurkeztu ahal izango dira:

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko

**Primero.-** Ordenar a la policía municipal la personación en las instalaciones del Kiosco del Frontón Beotibar de Tolosa, para proceder a su inmediata clausura, dando debida cuenta a quien allí estuviere ejerciendo las tareas de encargado.

**Segundo.-** Recabar de la mercantil CHURRO Y CHOCOLATE, S.L. todos los juegos de llaves existentes del citado inmueble municipal, que deberá quedar cerrado en presencia de la policía municipal.

**Tercero.-** Dar cuenta inmediata al pleno, en la primera sesión que éste celebre, del acuerdo adoptado.

**Cuarto.-** Dar traslado del acuerdo adoptado en este sentido al Área de Urbanismo y al Subárea de Secretaría General, Contratación y Patrimonio.

La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Antes de recurrir judicialmente contra él, el interesado, si lo desea, podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En caso contrario, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo, en lugar de interponer recurso de reposición o impugnar



*epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.*

*Interesdunei legearen arabera jakinaraz bekio.*

*Agindu eta izenpetzen duena alkate-lehendakariak, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.*

*la contestación a dicho recurso. El presente recurso deberá ser presentado ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.*

*Notifíquese en forma legal a los interesados.*

*La alcaldesa-presidenta que ordena y firma y yo, la secretaria que doy fe, en Tolosa, el día de la firma electrónica.*

*Alkate-lehendakaria  
La alcaldesa-presidenta*

*Udal Idazkariak  
La secretaria municipal*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **11. BERRI EMATEA: TOLOSAKO BIZTANLEEN ERROLDAREN BERRIKUSPENETIK ATERATAKO BIZTANLEEN KOPURU OFIZIALA, 2022KO URTARRILAREN 1EKOA.**

### **AURREKARIAK**

2022eko azaroaren 28an igorritako jakinarazpenean (Tolosako udaleko sarrera-erregistroa: 2022/11/30ekoa, 12.687 zk.duna), Errolda Kontseiluak jakinarazi zitzaion udal honi biztanleriaren zifra ofiziala, 2022ko urtarrilaren 1eko datarekin.

### **ARAUDIA**

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) ezartzen dute udalek Estatistikako Institutu Nazionalari (aurrerantzean, INE) bidali behar dizkiotela, baliabide informatiko edo telematikoen bidez, udal-erroldako datuetan gertatzen diren hileko aldaketak

2.- Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek udal-erroldak berrikustea onartuko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari erreferentzia eginez, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko dituzte.



Horretarako, kontuan hartuko dituzte dagokion udalerriko erroldan izandako aldaketak, hileko truke-fitxategietan Estatistikako Institutu Nazionalera bidali direnak, bai eta hark martxora arte hileko fitxategietan (HppmmMIA.3aA fitxategiak) jakinarazitako koordinazioaren emaitza ere.

**3.-** Populazio-zifraren proposamena lortzeko kontuan hartuko den informazioa erregistro bizi eta aktibo guztiak izango dira erreferentzia-datan, berrikuspenaren urteko urtarrilaren 1ean, eta hauek izango dira:

- Udalek EINera bidali badituzte, IDA-Eroldan HppmmMIA.3aa fitxategietarako argitaratutako urteko egutegian ezarritako egunera arte;
- INEren oinarrian sartu direnak;
- Estatistikako Institutu Nazionalaren koordinaziotik eratorritako gorabeheraren batek eragiten ez badie, eta desadostasuna sortu bada, oraindik berretsi edo ebatzi gabe badago.

**4.-** Ebazpenak, 2018ko uztailaren 20koak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarenak, Udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal-erroldaren urteko berrikuspenari buruz eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruzkoak emandako prozedura jarraitu ondoren, Udalek urteko egutegian ezarritako epea izango dute EINk egindako eragozpenei alegazioak aurkezteko. Alegazio hauek aztertu eta ebatziko ditu Estatistikako Institutu Nazionalak, Ebazpen honetan jasotako irizpideak jarraituz. Ebazpenean jasotakoez bestelako argudioetan oinarritutako alegazio oro, EINek onartzen ez badu, Erroldatze Kontseiluaren esku utziko da desadostasun gisa, hark txostena egin dezan

**5.-** Erroldatze Kontseiluak desadostasunen berri eman ondoren, bai eta EINeko presidentek Gobernuari helaraziko dion biztanleria-kopuruaren proposamena ere, azken hori udal bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, IDA-Erolda bidez deskargatzeko prest dagoen jakinaraziko zaio FppmMIA.aaa fitxategiari. Fitxategiaren erregistro-diseinua V. eranskinean jaso da, eta alegazioak baietsi/ezetsi egin dira.

**6.-** 1037/2022, Errege dekretuak , abenduaren 20koak, 2022ko urtarrilaren 1eko udal-erroldaren berrikuspenaren ondoriozko biztanleria-zifrak ofizialtzat jotzen ditu. Tolosako udalerraren kasuan, biztanleriaren zifra ofiziala, 2022ko urtarrilaren 1ekoa, **19.886koa** da.

Beraz,

**Udalbatzak honako honen berri izango du:** 2022ko urtarrilaren 1ean Tolosako udalerriko biztanleriaren zifra ofiziala **19.886koa** dela, Estatistikako Institutu Nazionala emandako informazioaren arabera.



**Hori horrela**, Informazio hau argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **12. KREDITU ALDAKETA HAUEN BERRI EMATEA:**

### **- KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKO 20/2022 KREDITU ALDAKETA**

2022/20 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2887 Alkatetza dekretuak hau dio:

### **ALKATEAREN DEKRETUA**

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 20/2022 kreditu aldaketa.*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
1	PERSONAL GASTUAK	6.562,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	35.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	140.700,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>182.262,00</b>



**FINANTZAKETA**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	182.262,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>182.262,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkatea

Idazkaria

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**- KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEKO 21/2022 KREDITU ALDAKETA**

2022/21 kreditu transferentzien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2892 Alkatetza dekretuak hau dio:

**ALKATEAREN DEKRETUA**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

*Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2022-KALD-000022-00 zenbakiduna (21/2022 kreditu aldaketa).*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 29. artikuluen 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

**EBATZI DUT**



**Lehenengoa.-** Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	48.451,00	20.000,00	28.451,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>48.451,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>28.451,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	423.152,00	20.000,00	443.152,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>423.152,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>443.152,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

*Idazkaria*

*Alkatea*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**- KREDITU GAIKUNTZAREN MODALITATEKO 22/2022 KREDITU ALDAKETA**

2022/22 kreditu gaikuntzaren modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2916 Alkatetza dekretuak hau dio:

**ALKATEAREN DEKRETUA**

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*





*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 22/2022 kreditu aldaketa.*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako foru aruak 31. artikuluan 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

### **GASTUAK**

<b>Kap.</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	28.630,00
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>28.630,00</b>

### **SARRERAK**

<b>Kap.</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	28.630,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>28.630,00</b>

**Bigarrena.-** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

Alkatea

Idazkaria

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**- KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEKO 1/2023 KREDITU ALDAKETA**

2023/01 kreditu transferentzien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2023/164 Alkatetza dekretuak hau dio:

**ALKATEAREN DEKRETUA**

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 1/2023 zenbakiduna.*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** *Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	663.000,00	40.000,00	623.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>663.000,00</b>	<b>40.000,00</b>	<b>623.000,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Egungo kredituak</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	30.000,00	40.000,00	70.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>30.000,00</b>	<b>40.000,00</b>	<b>70.000,00</b>

ESKU2b42e4c8-4b5d-42f1-a5bd-bc94180bfaec



***Bigarrena.-*** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Idazkaria

Alkatea

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Udalbatzak, aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:**

**EAJ/PNV ETA PSE-PSOE-EE ALDERDIAK AURKEZTU DUTEN "ARRAZOI POLITIKOENGATIKO INDARKERIA ERASOEN EZ DUTE LEKURIK GURE HERRIAN" IZENENKO MOZIOA**

Mozioak honela dio:

**"ARRAZOI POLITIKOENGATIKO INDARKERIA ERASOEN EZ DUTE LEKURIK GURE HERRIAN"**

*Errespetua oinarrizko baldintza da elkarbizitzarako. Herri honek bizi izan ditu garai ilunak, indarkeriaz, beldurrez eta erasoen beteriko urte bortitzak, ustez, atzean utziak genituenak.*

*Lanketa mardula egin dugu azken urte luzeetan bizikidetzaren alorrean erakunde ezberdinetatik eta alderdi politiko guztien artean, herritarrekin bat eginda ELKARBIZITZAREN ALDE.*

*Arrazoi politikoengatik, Ibarako EAJ-PNVko zinegotzi bat erasotua eta jipoitua izan zen joan den asteburuan. Lehenik eta behin, biktimari gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diogu eta erabat gaitzetsi nahi dugu gertakaria, horrelako indarkeria erasoek ez dutelako lekuri gure gizartean. Onartezinak dira eta ozen adierazi nahi dugu horrelako erasoek eta erasotzaileek ez dutela lekuri gurean. Horrelako erasoak ezin dira berriro ere gertatu ezta errepikatu. Ez hemen, ez inon.*

*Ezinbestekoa da, Alderdi Politiko guztiek salatzea era honetako indarkeria erasoak eta gizarteari, herriari, ere eskatzen diogu, horrelako eraso eta jarreraren aurrean erantzuteko: elkar errespetua beharrezkoa delako bizikidetzaren aldeko benetazko urratsak egiteko.*



*Pertsona guztien giza eskubideekiko daukagun errespetua berretsi nahi dugu.*

*Atzean utzi behar ditugu garai bateko gertakariak, mehatxuak, erasoak eta irainak, pertsonen ideologia eta militantzia ezin baita erasoen oinarri izan behin ere, gertaera puntual honetan gertatu den bezala.*

*Benetako bizikidetzaz herritar guztien errespetutik eraiki behar da, baita ere gertatu den eraso tamalgarriaren deslegitimaziotik ere. Batez ere, desberdin pentsatu edo arrazoi politikoengatikoak badira.*

*Giza eskubideak aldarrikatzen ditugu, beste behin, errespetuan, askatasunean eta elkarbizitzan oinarritutako gizartea eta etorkizuna eraikitzeko."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkakoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du " Arrazoi politikoengatiko indarkeria erasoek ez dute lekurik gure herrian" izeneko mozioa

### **13. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 20:45ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatu dut, alkateak ontzat emanda.

O.e.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

## ERANSKINA

### ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA ETA AKATSAREN ZUZENKETA.

#### *Lanpostuaren ezaugarriaren zuzenketa*

#### **HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU, INGURUMENA, MUGIKORTASUNA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA / URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS, MEDIO AMBIENTE, MOVILIDAD Y TRANSICIÓN ENERGÉTICA**

#### JASANGARRITASUNA, INGURUMENA, LANDA-GARAPENA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA / SOSTENIBILIDAD, MEDIOAMBIENTE, DESARROLLO RURAL Y TRANS. ENERGÉTICA

KODEA CODIGO	IZENA DENOMINACIÓN	DOT	LH RL	ES	AZP SUB	TAL GC	TIT	SIN	HA PR	BAL REQ	HE PL	DERRIG PRECEP	LAN JOR	DE	D.MAILA NIVEL D.	ESPEZ. ESPEC.	OP CP	EGOERA SITUACIÓN	OHAR OBSERV
6.301	INGURUMENA, JASANGARRITASUNA ETA LANDA-EREMUKO TEKNIKARIA TÉCNICO MEDIO AMBIENTE, SOSTENIBILIDAD, ZONA RURAL Y TRANS. ENERGÉTICA	1	F	AB AE	TEK TEC	A2	420	E N	LO CG	12	4	2021.06.30 30.06.2021	EE CD	N	23	20.331,50		BBO OP	*

\*Lanpostuen zerrenda honetako ordainsariak, berriazko osagarriei dagokienez, ez daude %1,5eko igogerarekin eguneratuta.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023IPLE0001-2023-01-26 Ohiko osoko bilkurako akta/2023-01-26 Ohiko osoko